



2018KO BALANTZE-TXOSTENA: EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOAN ZER GARDENTASUN MAILA DAGOEN AZTERTZEN DUENA

Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko erabakia (informazio publikoaren sarbideari, publizitate aktiboari eta gardentasun nahiz gobernu onaren kulturaren aurrera egiteari dagokionez Euskal Autonomia Erkideko Administrazioaren funtzionamendu-neurriak onartzen dituen) eta 2015eko balantze-txostenaren, 2016ko balantze-txostenaren eta 2017ko balantze-txostenaren berri izateko eta gardentasuna bultzatzen jarraitzeko neurriak onartzeko Gobernu Kontseiluaren erabakiak betez.



- I. **SARRERA**
- II. **EUSKO JAURLARITZAREN GARDENTASUN EREDUAREN EZARPENA: ANTOLAKETA-EREDU BAT, LANAREN KULTURA BERRI BAT ETA KUDEAKETARAKO TRESNA BERRIAK**
 1. **ANTOLAKETA-EREDUA, GARDENTASUNA BULTZATZEKO ANTOLAERA BAT**
 2. **LANAREN KULTURA BERRI BAT SUSTATZEA**
 - a. Barruan gertatzen dena kanpotik ikusten da gertatzen den une berean.
 - b. Barrutik kanpoan gertatzen denari adi egon beharra dago (entzute aktiboa)
 - c. Balio publikoa sortzen duten beste eragile aktibo batzuen aitorpena
 3. **GARDENTASUNA KUDEATZEKO TRESNA BERRIAK**
 - a. **GARDENA ETA NAZIOARTEKO GARDENTASUNAREN EBALUAZIOAK**
 - b. **TRAMITAGUNE ETA LEGEGUNEA**
 - Aplikatzekoa den araudia eta garrantzi juridikoko informazioa
 - Hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak
 - Urteko eta urte anitzeko planak eta programak, betetze-mailaren adierazleak eta emaitzak
 - c. **ARGITALPENERAKO BESTE TRESNA BATZUK**
 - Funtzioak, erakundearen organigramak, kargu publikoen katalogoaren ibilbide profesionala eta profila
 - Kontratatzailearen profila eta kontratu txikiak
 - Emandako laguntzak eta diru-laguntzak
 - LZ eta enplegatuen bateragarritasunari buruzko ebazpenak; ordainsariak, kargua uztearen ondoriozko kalte-ordainak eta kargu publikoen bateragarritasunari buruzko ebazpenak
 - 19/2013 Legearen publizitate aktiboko betebeharrekin berariaz lotuta ez dauden beste adierazle batzuk.



- d. **OPEN DATA EUSKADI ATARIAREN BILAKAERA**
- e. **INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDERAKO
ESKUBIDEA ERABILTZEKO PROZEDURA/
INFORMAZIO OROKORRERAKO POSTONTZIAK**
- f. **EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO ETA
PARTAIDETZAKO ENTITATEEN WEBAK, ETA
TRESNA KOMUNAK (GARDENTASUNAREN
BETEBEHARRAK BETETZEARI BURUZKO DATUEN
BILAKAERA)**

III. 2019RAKO ERRONKAK



I. ATARIKOA

Gobernu Kontseiluak, 2015eko urtarrilaren 13an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren funtzionamendurako neurriak onartzen zituen erabaki bat hartu zuen, informazio publikoa eskuratzeari, publizitate aktiboa egiteari eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturaren aurrera egiteari dagokienez.

Erabaki horretan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legean ezarritakoa betetzea bermatzeko antolakuntza-eredua eta prozedura onetsi ziren, eta informazio publikorako sarbiderako eskubidearen eta publizitate aktiboaren ezarpena sail guztiekin bultzatu eta koordinatzeko agindua eman zitzaion Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzari, EAEko Administrazioarako eta haren sektore publikorako informazio publikorako sarbide-eskaeren erregistro komuna bermatze aldera.

Halaber, ezarri zen ezen, erabakia hartu eta urtebeteko epean gehienez ere, Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak gardentasunaren bi alderdien (publizitate aktiboa eta informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea) ezarpen-mailari buruzko balantze bat aurkeztu behar zuela. 2016ko martxoaren 22an, Gobernu Kontseiluak txosten horren berri izan zuen (txosten horretan, 2015ean izandako aurrerapenei buruzko balantzea ez ezik, 2016an heldu beharreko erronkak ere ageri ziren) eta erabaki zuen EAEko Administrazioan eta haren sektore publikoan gardentasuna zabaltzen jarraitzea, bai eta 2016an lortutako aurrerapenei buruzko kontuak ematea ere. Era berean, 2017ko apirilaren 4an, 2016. urtean egindako aurrerapenen berri izan zuen eta erabaki zuen 2017an gardentasuna zabaltzen jarraitzea eta horren berri ematea. Era berean, 2018ko uztailaren 3an, 2017. urtean egindako aurrerapenen berri izan zuen eta erabaki zuen 2018an gardentasuna zabaltzen jarraitzea eta horren berri ematea; horretarako da txosten hau. Laugarren balantze honetan, komeni da atzera begiratzea eta kontuak ematea Eusko Jaurlaritzak nahi duen gardentasun-eredua sistematizatzen eta gauzatzen joateko moduari buruz eta eredu horren ezarpen-egoerari buruz.



II. EUSKO JAURLARITZAREN GARDENTASUN EREDUAREN EZARPENA: ANTOLAKETA-EREDU BAT, LANAREN KULTURA BERRI BAT ETA KUDEAKETARAKO TRESNA BERRIAK

Duela 10 urte Espainiako lurraldean ia ez zen entzuten gardentasunari buruz hitz egiten; bazirudien gardentasunarena Iparraldeko herrialdeetako demokrazien berezko balioa bat zela. Gaur egun, ordea, entitate publiko edo pribatu bakarra ere ez dago bere antolamenduaren balio gisa gardentasuna eta kontu-ematea publikoki aipatzen ez duena.

Hala eta guztiz ere, gardentasuna polemiko bihurtu da. Eztabaida publikoan entzun ohi da gardentasun-atariak marketin hutsa direla, informaziorako eskubidetik jakiteko eta ulertzeko eskubidera tarte bat badagoela, gardentasunak ez duela balio ustelkeriaren kontra borrokatze, ezkutukotik elikatzen den tranpa bat dela, kontrol sozialerako ilusio optiko bat, herritarrek ordezkatzeko dituztenek erabakiak hartzeko espazio bat behar dutela eta nork bere burua babestea legitimoa dela eta abar. Horrek hutsaltzeko eta atzera egiteko arrisku bat badakar, zeina ez litzatekeen gertatu beharko Eusko Jaurlaritzaren apustua den Gobernu Ona bultzatzeko testuinguruan.

Gardentasun-atariak marketin hutsa direla dioen baieztapenari, erantzun beharko litzaioke teknologiarik ezak gardentasunaren aurrerapena dakarrela berekin, baina egiazki ezin duela hori ordeztu. Tresna bat dira, tresna oso egoki bat, baldin eta haien atzean gardentasun-baloreen inguruko kultura eta kudeaketa badaude, bai eta gardentasun-baloreekiko konpromisoa ere. Gardentasun-atari bat edukitzeak gardenago egiten zaitu, baina ez du nahitaez esan behar gardena izatea.

Informaziorako eskubideak, jakina, berekin dakar informaziorik badagoen ala ez jakitea, hura ulertzea, harekin jardun ahal izatea (xede publiko edo pribatuekin berrerabiltzea, legeak ezartzen dituen mugekin), iritzia sortu ahal izatea, eta publikoaren kudeaketa salatu, zentsuratu edo kritikatu ahal izatea. Eta, horregatik, informaziorako eskubideak jakiteko eskubideari, ulertzeko eskubideari loturik egon behar du. Gauzak horrela, informaziorako eskubidea baliatzeak herritarrek eta haien eragile publikoak mobilizatu eta eraldatzen ditu, eta, horrela, bi alderdiek gobernuaren eta administrazio publikoen hobekuntzan ardura hartzen dute. Herritarrek informazio publikoa modu orokor eta ez-masiboan eskatu ez izanak ez du haren balioa kentzen, ez eta hura bermatzeko betebeharra ere. “*Ez dut ezer ere ulertzen, baina maite zaitut*”, hau da, eskatu nahiz ez eskatu, erakunde publikoek prest egon behar dute erantzuna emateko eta sortzen den informazio



publikoa ahal den modu eskuratzen errazenean eta ulergarrienean zabaltzeko. Eta hori, jakina, erronka handia da.

Gardentasunari ustelkeria kontrolatzeko eta prebenitzeko oinarrizko tresna izatearen balioa ematea gehiegizkoa da. Iparraldeko herrialdeetan, esaten da beste edozein herrialde bezain ustelak direla, baina aldea da han ustelkeria detektatzea askoz erre errazagoa dela, eta horregatik Suediako Auzitegi Gorenak, esate baterako, honako hau ebatzi zuen: Zer gertatzen da Suediako herritar batek —diplomatiko bat nahiz lehen ministroa izan— edozein funtzionario publikoren posta elektronikora edo lanerako sakelako telefonoan duen informaziora sartu nahi duenean? Hura erakutsi behar izateaz gainera, beste edozein eginbehar utzi behar duela herrialde horretako gardentasun legeen betekizun zorrotzak betetzeko. “*Inongo aitzakiarik ez dago*”, ebatzi zuen.

Halaber, gardentasunaren rankingen balioa zalantzan jartzen ari da, horretarako argudio gisa erabiliz tresna ez-zehatzak eta manipulatuak direla; horrek, izan ere, kontrol sozialaren ilusio optikoa sortzen du, eta, horrenbestez ez dute ezertarako ere balio. Bada, Nazioarteko Gardentasunaren INCAU bezalako operazioek aukera eman dute bai administrazio autonomikoak, bai aldundi, udal, parlamentu, kontrol-organo, alderdi politiko, sindikatu eta abarrekoak ere korrika argitaratzen hasteko Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak eskatzen duen informazio guzti-guztia ez ezik, beren antolamenduarekin eta erantzuleekin, aurrekontu-kudeaketarekin, kontratazioarekin eta izaera publikoko jarduerarekin lotutako askoz informazio gehiago ere. Besterik da informazio hori ulergarri gertatzen den, behar den guztia dagoen ala ez dagoen, edo zein unetan argitaratu behar den. Bistan da hobekuntzarako bide luzea dagoela, zeina, jakina, gardentasuna bultzatu eta kontrolatzeko kanpoko mekanismo horiekin hasi baita.

Azkenik, eta hainbeste informazio garden egiteak herritarren ordezkariengan eragiten duen ahultasunari buruzko kritikari dagokionez, baieztatu beharra dago ongi kudeatuta dagoen eta bilatzen den xedeari orientatuta dagoen gardentasunak ez dakarrela berekin botere legitimoa galtzea, zeren eta gizarte demokratiko aurreratu batean elkarren arteko eztabaida izateak legitimotasuna irabaztea baita, Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria jaso bezala.

Gardentasuna ez da berez helburu bat, legean ezarritako betebehar bat baizik, eta, batez ere, gobernu onerako funtsezko bitarteko bat. Gobernu on bat, Mark Moorek 1995ean zioen bezala, kontzepzio honi lotuta dago: “*ekintza publikoaren esparruko emaitza ona*



honako honetan datza: herritarrentzat eta erkidegoarentzat balio publiko ahal den handiena sor dadin lortzean. Eta balio publikoa sortzen da legitimotasun demokratikoko prozesu batean oinarrituta politikoki desiragarriak direla ezarri diren gizartearen beharrian eta eskakizunek eraginkortasunez erantzuten zaienean; izan ere, espero da aldaketa sozialak sustatzea, gizarte osoaren edo sortutako balio publikoaren hartzailer legitimotzat aitortutako talde sozial batzuen izaera aldatuko dutenak; eta ondasun publikoen izaerak bereizgarri duen eskuratze kolektiboaren dimentsio bat ematen da".

Bada, oinarri horren gainean, Eusko Jaurlaritza bere gardentasun-eredua garatzen joan da, gobernu onerantz bideratutako tresna gisa, gauzak ongi egiteaz gainera, euskal gizartearentzat gauza onak egiten dituen gobernu baterantz.

Ondoren, eredu horren ezarpenean egindako aurrerapenen laburpen bat ematen dugu, ezarritako antolamendu-ereduari, sustatzen duen lanaren kultura berriari eta garatutako kudeaketa-tresna berriei dagokienez, bai eta lantzen jarraitu beharreko ildoei ere, autokonplazentzian ez erortzeko eta eztabaida kritiko ez-erakitzaileraren inguruan gertatu eta antolamenduetan beti eragina izaten duten atzera-egiteak saihesteko, erronka handiak dakartzaten eta oso handinahiak diren aldaketak desazeleratze aldera.

1. ANTOLAKETA-EREDUA, GARDENTASUNA BULTZATZEKO ANTOLAERA BAT

Gardentasunaren erronkak **lidergo sendoa behar du gailurrean, lidergo banatua, enplegatu publiko guztien inplikazioarekin, bai eta kontroleko mekanismo independenteak ere.**

Lidergo politiko sendo horren erakusgarri, XI. Legegintzaldiko Jaurlaritzak **bere Gobernu Planaren 15 adierazleen arteko baten gisara** jaso zuen **nazioarteko gardentasun-adierazleetan liderra izatearena**. Eta adierazle horren ondoan, beste batzuk badaude, hura bezain garrantzitsuak eta konplexuak; esate baterako, pobreziaren edo eskola-uztearen tasa gutxitzea. Gardentasuna jaso zuen **2020ko Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren ardatz gisa**, eta Gobernu Kontseiluaren 2017ko uztailaren 11ko erabakiaren bidez, **Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordea** sortu zen, Eusko Jaurlaritzak gardentasunari eta herritarren partaidetzaren arloan bideratzen dituen jarduketak **koordinatzeko organo gisa**. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxiki zaio eta funtzio hauek hartzen ditu bere gain:



1. Gobernantzaren, gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren alorreko plangintza zuzendaria ezartzea.
2. Publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen arloan jarraibideak, protokoloak eta jarduteko irizpideak proposatzea batzordea atxikita dagoen saileko titularrak Gobernu Kontseiluari onartzeko proposa diezazkion.
3. Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian jasotako konpromisoak zabal daitezen bultzatzea.
4. Elkarlaneko eta kontuak emateko ikuspegia duten politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa bultzatzea, era horretako politika eta zerbitzuek izan dituzten emaitzei eta eraginei buruz.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek indarrean dagoen araudiak publikizitate aktiboari buruz ezartzen dituen betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko nahitaezko zereginak koordinatzea.
6. Nazioarteko gardentasunaren adierazleetan lidergoa sendotzeko beharrezkoak diren jarduerak bultzatzea.
7. Informazio publikoa eskuratzeko eskaeren izapidetzea koordinatzea eta haren jarraipena egitea, ahalik eta azkarren eta ahalik eta kalitate onenarekin erantzuten zaiela bermatzeko.
8. Informazio publikoa kudeatzeko eta argitaratzeko bitartekoak, plataformak eta garapen informatikoak erabil daitezen sustatzea.
9. Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoa osatzen duten erakundeetan, gardentasuna ezartzeari buruzko balantzeen urteko txostenak kontuan hartzea.

Batzordea 2017ko irailaren 13an eratu zen, eta oinarrizko euskarria bilakatu da publikizitate aktiboko informazioa mantentze aldera behar diren lanak koordinatzeko eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko eskaerak kudeatzeko, bai eta euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen eta parte hartutako entitateen publikizitate aktiboko betebeharrak sustatzeko lanerako ere. Hori demostraturik geratu zen euskal sektore publikoaren publikizitate aktiboaren betebeharrak betetzeari buruzko 2017ko balantzean aurkeztutako datuekin, eta aurrerago aurkeztuko ditugun informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eskaerei erantzuteari buruzko datuekin, eta publikizitate aktiborako tresnen garapenarekin eta ezarpenarekin.

Dena den, gardentasuna ezartzeak eskatzen du aldaketa sistemiko bat egin dadila, paradigmaren aldaketa bat, zeinean antolamenduko pertsona bakoitzak aldaketa eragin ahaliko duen. Sistemak modu ez-kontziente batez edo modu aurreikusgarri eta kontziente batez aldatzen dira, eta borondatea bada erakunde gardena izatea, mentalitate- eta jokabide-aldaketa bat gertatu beharra dago antolamenduko kide guztiengan, emaitzak horrekin bat etor daitezen. **Hori guztia dela eta, euskal sistema osoa eta haren tresnak**



erantzukizun banatuaren ikuspegi horrekin eratu dira, edozein espedienteren instrukzioaren erantzuleek kontu-ematearen erantzukizuna eta izaera publikoko edozein informazioaren tratamenduaren erantzukizuna senti dezaten, horren bidez jarduketa publikoan legitimotasun handiagoa irabaziz. Legearen aplikazioa, eredugarritasuna, eskuragarritasuna, kudeaketaren erantzukizuna, kontu-ematea eta gardentasuna gure administrazio publikoenganako konfiantza eraikitzeko oinarritzko zutabeak dira. Horixe da Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako langileekin eta langile teknikoekin egin diren prestakuntzako eta sensibilizazioko lana bidez zabaltzen joan den eredia, eta hari ekiten jarraitu beharko da hurrengo gobernu-aldaketetan.

Azkenik, eta bermerako organo gisa, aldi baterako eta organo independentea osatzen ez den bitartean, **Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea** eratu zen; batzorde horrek, izan ere, ahalmen osoak izango ditu gardentasuna, kontrola eta publizitate aktiboaren betebeharren jarraipena sustatzeko eta informazio publikoa eskuratzeari ezezkoa eman izatearen ondoriozko erreklamazioak ebazteko. Irailaren 13ko 128/2016 Dekretua, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoa, irailaren 16an argitaratu zen. Horren helburua bakarra da herritarrek informazio publikoa eskuratzearen arloan jardun-eremu bateko EAEko administrazio publikoek ukatzeko emandako berariazko nahiz ustezko ebazpen ororen aurrean jartzen diren erreklamazioei erantzutea. Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren urriaren 6ko aginduaren bidez, batzordea osatu zen.

Taula honetan jasotzen dira 2018ko abenduaren 31ra arte jasotako eta ebatzitako erreklamazioak (Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak eman du), eta gertatzen ari den hazkunde esponentziala islatzen dute:

Erreklamazioen kopurua					
URTEA	GUZTIRA	Udalen sarbide- ukapenaren aurka	Aldundien sarbide-	Eusko Jaurlaritzaren	Beste erakunde batzuen sarbide-



			ukapenaren aurka	sarbide-ukapenaren aurka	ukapenaren aurka
2016	2	1 (erreklamazio baietsia)	1 (erreklamazio bideratua)		
2017	32	10 (erreklamazio baietsiak)	1 (erreklamazio baietsia)	6 (erreklamazio baietsiak)	
		1 (erreklamazio onartu gabea)		2 (erreklamazio onartu gabeak)	1 (erreklamazio onartu gabea)
				1 (erreklamazio ezetsia)	
				2 (erreklamazio artxibatuak)	
		6 (ebazteke 2017-12-31n)		2 (ebazteke 2017-12-31n)	
2018	102	37 (erreklamazio baietsiak)		4 (erreklamazio baietsiak)	8 (erreklamazio baietsiak)
		10 (erreklamazio onartu gabeak)		2 (erreklamazio onartu gabeak)	2 (erreklamazio onartu gabeak)
		3 (erreklamazio ezetsiak)		3 (erreklamazio ezetsiak)	
		11 (erreklamazio artxibatuak)			
		20 (ebazteke 2018-12-31n)		2 (ebazteke 2018-12-31n)	
GUZTIRA	136	99 erreklamazio	2 erreklamazio	24 erreklamazio	11 erreklamazio

Foru aldundiek sarbide-eskaerei emandako ezezkoen aurkako erreklamaziorik ez egotearen arrazoia izan daiteke erakunde horiek beren kontrol-organoak sortu izana (Arabako Aldundiak 2017an, Bizkaikoak 2016an eta Gipuzkoak 2019an); halere, organo horien jarduna oso txikia izan da orain arte (erreklamazio bat ebatzi da Araban eta hiru Bizkaian, haien web-orrietan argitaratutakoaren arabera).

Nabarmendu beharra dago ezen kontrol-erakunde hori, Informazio Publikoaren Sarbiderako Batzordea, **eginkizun oso mugatu batekin** sortu zela, aldi baterakoa izango zela aurreikusten baitzen; honako hau da eginkizun hori: herritarrek informazio publikoa eskuratzearen arloan jardun-eremu bateko EAEko administrazio publikoek ukatzeko emandako berariazko nahiz ustezko ebazpen ororen aurrean jartzen diren erreklamazioei erantzutea. Halere, denboran luzatu denez (ia hiru urtez), aipatu beharra dago haren jarduketa oso mugatuta dagoela, batez ere eskumenik ez duelako ez ematen dituen ebazpenen betetzearen gaineko jarraipena egiteko, (zehapen-ahalmenik ez baitu) ez



publizitate aktiboaren betebeharrak ez-betetzeagatiko erreklamazioak kontrolatu eta ebazteko, ez eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzen bidez eta arloan jarduteko irizpideak emanez gardentasunaren kultura sustatzeko ere.

Batzordeak bere ebazpen eta akta guztiak argitaratzen ditu, erreklamatzaileraren ezaugarriei buruzko informazio osoarekin —sexua, sarbidea, erreklamaturako administrazioa, ukatutako informazioa edo onartu ez dena, ebazpena zein izan den eta haren edukia—, betiere erreklamazio-egilearen anonimotasuna eta erantzuna emateko epeak babestuz. Informazioa aurreko edozein aldagaitatik edozeinen bitartez bahetu daiteke, hartarako sarbidea irisgarria izan dadin.

2. LANAREN KULTURA BERRI BAT SUSTATZEA

Eusko Jaurlaritzaren gardentasuna sustatuko duen lanaren kultura berri bat ezartzeko daukagun ereduak interes handia pizten du autonomia erkidego guztietan, zeren eta asmo eta erronka handiak baititu, eta horrexegatik hautatu da jokabide egoki gisa; bestetik, halakotzat zabaldu ahal izan dugu, hainbat forotan, baita Madrilgo Universidad Complutensek Estatuko Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluarekiko baterako zuzendaritzaren pean ematen duen masterrean ere. Lanaren kultura berri hori hiru funtsezko printzipiotan oinarritzen da:

a. Barruan gertatzen dena kanpotik ikusten da gertatzen den une berean.

Antolamendu osoak konpromisoa eduki behar du ezarrita dagoen informazioa argitaratzearekin jarduketak gertatzen diren eta informazioa sortzen den unean. Hirugarren atalean printzipio hori betetzea bideratzeko sortu diren tresnen oinarritzko elementuak garatuko dira.

Gardena, Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-ataria, halako moduz diseinatuta dago non kontuak eman beharreko espediente, jarduera edo arloen erantzuleak informazioa argitaratzen ari diren webgune guztiekiko estekak edukiko dituen. Horren xedea da informazioa eguneratuta egotea eta egiazkoa eta osoa izatea.

Edozein unetan gobernu osatzen dutenak (organigrama) ezagutu ahal izateko, beren ibilbidearekin, eginkizunekin, gobernu planeko erantzukizunekin, kudeatzen dituzten giza baliabideekin, dauzkaten aurrekontuekin, albisteekin, parte hartzen duteneko ekitaldiekin...; lantze-prozesuan dauden planak, haien betetzea edo haien amaieraren ondoko ebaluazioa; lantzen ari diren arau-xedapenak, modu publikoan informatuz edo



kontsultatuz; ematen diren zerbitzuen kalitate-adierazleak; gastuaren betetze-maila; ematen joan diren diru-laguntzak; bitarteko propioei egiten ari zaizkien kontratu edo adjudikazioak; edo airearen eta uren kalitate-adierazleen eta berotegi-efektuko gasen jaulkipenaren bilakaera, edo kirurgia-ebakuntzetarako itxaron-zerrendak... erronka hori guztia Eusko Jaurlaritzaren apustua den gardentasunaren kulturaren ereduaren zati bat da. Hirugarren apartatuan, gardentasuna kudeatzeko tresnekin batera, aztertuko dugu nolako bilakaera izan duten 2015-2018 urteetan argitaratutako datuek, eta hobetzeari begira azpimarra non jarri behar den; halere, ikuspuntu kualitatibotik, nabarmendu behar da **Eusko Jaurlaritzaren apustua izan dela ahal den informazio publikoko kopuru handiena argitaratzea ez ezik, argitaratze hori ahal den kalitate handienarekin egitea ere, halako moduz non herritarrek jakin ahalko duten une bakoitzean zer gertatzen den eta zer esan nahi duen, eta haren inplikazioak baloratu eta berregite-ahalmena handitu ahalko dituzte, lor daitekeen balio handiena sortzeko.** Erronka hori desafio handi bat da, zeren eta kalitatezko informazio batek berekin baitakar bilatu beharrekoak diren honako baldintza hauek betetzea:

- Zehaztasuna: informazioak zehatza izan behar du.
- Osotasuna: argitaratu beharreko edukari buruz dagoen informazio guztia argitaratzera jo beharko da, eta daukan garrantziaren arabera zehaztuko da.
- Gaurkotasuna, informazioa gertatzen den unean.
- Testuingurua ematea, arrazoizko ulermena ahalbidetuko duena.
- Gardentasuna: egitateak eta egoerak zuzen ulertzea ahalbidetuko du. Gehiegizko informazioak desorientatu eta desinformatzen du.
- Desagregazioa, egin litezkeen beste analisi batzuk bideratuko duena.
- Estandarizazioa eta irekitasuna, berrerabiltzea ahalbidetuko duena.

Horretarako, **GARDENA birdiseinatze**ko lan egiten ari da, irudi berri bat, grafikoak eta bistaratzeak sartuz, informazio konplexuena ulertzen laguntzeko kontakizunekin eta abar... eta datozen hilabeteetan amaituko da lan hori. Dena den, informazioaren kalitatea eta gaurkotasuna konpromiso horrekin lerrokatzen den eta eguneroko egitekoan sortzen den informazio publikoa (planak, arauak, kontratuak, ekitaldiak, albisteak...) argitaratzea jasotzen duen antolamendu osoaren pean dago; izan ere, lan hori egiten joan izan da, baina ez desiratzekoa litzatekeen erritmoarekin eta osotasunarekin. Arloz arlo zehaztuko ditugu halakoak 3. atalean.

Azkenik, aipatu beharra daukagu ezen **2018. urtean, Euskadi hautagaia izan zela Gobernu Irekiaren Nazioarteko Aliantzako (OGP) munduko 20 erregioetan**



sartzeko. Hautagaitzak Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien, hiru hiriburuetakoa udalen eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziaren erakundearteko konpromisoa jasotzen zuen, eta horren xedea zen gure gobernuak nazioarteko erakunde horretan ezarritako printzipioen inguruan irekitzea. Gure hautagaitzak bertaratutakoak konbentzitu zituen, euskal erakunde guztien laguntzaren bidezko aurrerapenaren alde egiten zuelako, eta alderdi horretan munduko beste erregio batzuei egin zezakeen ekarpenari buruzko itxaropenak sortu zituen. **Behin hautagaitza onartuta, herritarrekin batera sortutako plan bat landu zen 2018-2020 aldirako; hartan, bost konpromiso jasotzen dira:**

- 1. KONPROMISOA: KONTUAK EMATEA agintaldiko planen bidez
- 2. KONPROMISOA: OPEN DATA EUSKADI ETA LINKED OPEN DATA
- 3. KONPROMISOA: Herritarren parte-hartzearen ILAB-a Euskadin
- 4. KONPROMISOA: OPEN ESKOLA (herritarrentzat irekitako eskola)
- 5. KONPROMISOA: INTEGRITATEAREN EUSKAL SISTEMA

Horiek guztiak bideratuta daude euskal eredu bat sortzera, zeinak aukera emango baitu gure gobernuak irekitzeko, euskal herritarrekin elkarreraginez jarduteko eta lankidetzan oinarritutako gobernantza sustatzeko era eta modua lerrokatzeko.

Txosten honetan, **OGP Euskadi 2018-2020 Planeko 1. konpromisoa nabarmendu beharra dago.** Konpromiso horren arabera, kontuak emateko eredu komun eta erraz bat eraiki nahi da jabetza hartzean hartutako konpromisoen betetze-mailari buruz (**Agintaldiko Plana, Gobernu Plana**); horrek, izan ere, sustatuko du herritarrak informatuta egotea eta demokrazian aurrera egitea bideratuko duen eskakizun-maila handiko auditoria sozial bat egotea.

Aldi berean, gardentasunak aurrera egitean eragin handia du **OGP Euskadi 2018-2020 Planeko 2. konpromisoak, zeinak honako hau baitu xede:** Euskadiko berrerabiltzaileek (unibertsitateko ikertzaileak barne) eta herritarrek eskatutako datuen multzoak identifikatzea eta euskal administrazioek datu horiek normalizatu eta elkarrekin lotzea eta, horretarako, bistaratzeak eta erakundearteko zerbitzu berriak garatzea.

2019ko txostenean, gertatzen joan diren aurrerapenei buruzko kontuak emango dira.

Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzako kidea izateak berekin dakar Gobernu Irekiaren
Adierazpenari
atxikitzea



(<https://www.opengovpartnership.org/declaracion-de-gobierno-abierto>), eta horrek esan nahi du gure konpromisoak indartzeko **erantzukizuna onartzea** gardentasuna hobetzeari, ustelkeriaren aurka borrokatzeari, herritarrek ahalduz gero eta gobernua eraginkorragoa eta arduratsuagoa izateko teknologia berrien boterea aprobetxatzeari begira, bai eta irekitasunaren balioa defendatzea ere, geure herrialdeetan eta elkarren arteko lotura gero eta gehiago dituen mundu batean oparotasuna, ongizatea eta giza duintasuna egon daitezen, **eta honako konpromiso hauek hartzea**:

- **Gobernu-jarduerei buruzko informazioa eskuragarriago egotea**
- **Herritarren parte-hartzea laguntzea**
- **Gure gobernu guztietan integritate profesionaleko estandar gorenak aplikatzea**
- **Teknologia berrietarako sarbidea areagotzea, kontuak ireki eta emateko**

Halaber, berekin dakar **kanpoko ebaluazioen pean egotea**, hain zuzen ere Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzak ezarrita dituen neurketa-estandarren arabera, zeinak oso zorrotzak eta zehatzak baitira. Datozen hilabeteetan ezagutuko dugu zazpi euskal erakundeek eta Innobasquek herritarrekin batera 2018-2020 Ekintza Plana elkarren artean sortzeko prozesuari buruzko kanpoko lehen ebaluazioaren emaitza.

b. Barrutik kanpoan gertatzen denari adi egon beharra dago (entzute aktiboa)

Lan-ildo hori da batez ere Irekiari —gobernu irekiaren atariari— dagokiona, herritarren artean eztabaidatzeko Jaurlaritzak egiten dituen proposamenen bitartez, herritarren eskariak jasoz eta haiei erantzuna emanez, galdera eta erantzun parlamentarioak argitaratuz, albisteak iruzkinduz, ekitaldien berri emanez eta abar. Txosten honetan ez da esparru hori buruzko baloraziorik jasotzen, zeren eta Lehendakaritza Saileko Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren eskumena baita hori. Esan beharrik ez dago zeinen garrantzitsua den, halaber, bitarteko horretarako sail guztien inplikazioa, araudien, planen, politiken edo zerbitzuen proposamenak argitaratzerakoan eta herritarren eskaerei erantzunak eman eta, oro har, iruzkinak egiterakoan. Irekiari buruzko datu estatistikoak hemen https://www.irekia.euskadi.eus/eu/site/tos?label=proposals_statistics&requirements%5Blabel%5D=%28%3F-mix%3A%5Cw%2B%29; 2018. urteari buruzkoak, berriz, hemen: <https://infogram.com/d95ff1a7-aa64-4920-83fd-25f689ff045e>.

Herritarrekiko elkarrenerginerako eta OGP Euskadi 2018-2020 Planeko konpromisoak betetzeari buruzko kontuak emateko, ekainean atari bat sortu zen, gaztelaniaz, euskaraz



eta ingelesez, zeinak aukera ematen baitu programatutako ekitaldi guztiak ezagutzeko, konpromisoko eta foro irekiko taldeen dokumentazioa (aktak, aurkezpenak, produktu garatuak...) ezagutzeko eta planaren ezarpenari buruzko ebidentziak ere ezagutzeko (<http://www.ogp.euskadi.eus/hasiera/>).

Hemen OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planean ezarritako 2. konpromisoa aipatu beharra dago, lehenago ere aipatu dena; izan ere, datu publikoen irekitze-politika berrorientatu nahi da, zeren eta zentratuegi baitago administrazio publikoek informazioa digitalizatzeko maila irekitzeko aukeretan. Horren helburuak honako hauek dira: herritarrek egiazki eskatzen dituzten datu-multzoak identifikatzea; euskal administrazioen datuak normalizatu eta homogeneizatzea, haiek irekitzeko modua eman ahal izateko, eta herritarrei informazioa emateko zerbitzu komunak berrerabili, elkarrekin lotu eta sortzea. Lanaren lehen fasea —herritarrek eskatzen dituzten datuen-multzoak identifikatzea, haietarako zerbitzuak sortzeko— jada amaituta dago, eta hemendik gutxira hasiko dira irekitze- eta estandarizatzeko-faseak.

c. Balio publikoa sortzen duten beste eragile aktibo batzuen aitorpena

Printzipio hau oinarritzkoa da, zeren eta Euskadin erakunde zibiko ugari baitaude, herritarrenak, honako esparru hauetan balio publikoa sortzea sustatzen dutenak: garapen ekonomikoa, kohesio soziala, ikaskuntza eta kultura, osasuna, ingurumenaren babesa eta herritartasun aktiboaren sustapena; erakunde zibiko horien jarduketan, izan ere, pertsonen eta kolektiboen ahalduztze-prozesuak aktibatzen dira. Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak herritarrek sortutako balio publiko hori ikusgarri egiteko ekintzak proposatzen zituen, eta jarduera hori **2015, 2016, 2017 eta 2018ko Elkarlan Sarien deialdietan** gauzatu da; honako proiektu hauek parte hartu dute sari horietan:

Deialdia	Aurkeztutako proiektu-kopurua	Sari-kopurua	Saritutako proiektuak
2015	59	3	• Wiki toki Elkartea • Fiare Euskadi proiektua • Uliako Auzo Elkartea- Mintegiak
2016	49	3	• Goiener



			• Reas Euskadi azoka soziala • Merkatua, Larrantxeko Auzo Elkarte
2017	18	4	• Donostiako Emakumeen Etxea • Hiri lagunkoiak pertsona guztientzat. Zerbikas Fundazioarena • Bilbao Data Lab • Saregune, Sartu Arabarena
2018	30	3	• Bioalai Kontsumo Ekologikoko Elkarte • Wikiemakume, Etxebarriko Inurtxi Emakume Elkartearena • Impact hub Donostia

- Wiki Toki Elkarte: Jardunbide kolaboratiboen laborategi bat da, Bilboko San Frantzisko auzoan dagoena. Profesionalen eta amateurren, gizarte zibilaren eta eragile publiko eta pribatuaren arteko harremanen, hibridazioaren edo/eta baterako sorkuntzaren (diziplina eta esparru desberdinen artean) modu berriekin esperimentatzen dute.
- Euskadin Fiare proiektuari babesa emateko elkarte: Banka etikoko proiektu bat da, antolatutako herritarrengandik sortu zena, eta erakusten du proposamen eraldatzaileak egiteko gauza dela, gizarte zuzenago, kontzienteago eta arduratsuago bat eraikitzeke eredu finantzario desberdin baten bidez; izan ere, eredu horrek finantza etikoak eta ekonomia sozial solidarioa bultzatzen ditu.
- Uliako Auzo Elkarte: Uliako (Donostia) antzinako udal mintegiak berrerabiltzeko ideiatik sortu zen proiektu bat da; helburua da parke publiko handi bat egitea herritarrek hura erabili eta hartaz goza dezaten, ingurumenaren eta kulturaren arloko jarduerekin.
- Goiener, Goiener Elkartearen proiektu kooperatibo bat da, subiranotasun energetikoa berreskuratzeko. Elkartek sentsibilizazio- eta prestakuntza-lanak egiten ditu energia aurrezteko eta energiaren erabileran efizientzia bilatzeko.
- Merkatu soziala, bestelako ekonomia bat bizitza hobe baterako. Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearen proiektu bat da. Ekonomiaren alderdi desberdinak (produktzioa, finantzaketa, merkataritza eta kontsumoa)



garapen pertsonal eta komunitarioaren zerbitzuko bitarteko gisa —ez xede gisa— ulertzen ditu.

- Merkatua Portugaleteko alde zaharreko Larrantxe auzo elkartearen proiektu bat da. Auzolagun horiek, izan ere, bizia eman zioten azken urte luzeetan itxita egon den merkatu bati, eta hartan garapen komunitario, parte-hartzaile eta integratzaileko proiektu bat abiatu dute.
- Donostiako Emakumeen Etxea: baterako kudeaketa eta jabekuntza: Emakumeen Jabekuntzarako Donostiako Emakumeen Etxea Elkartearen proiektu bat da. Emakumeek topo egiteko eta elkarriketan eta gogoetan jarduteko espazio bat da etxea, eta helburu du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egitea bizitzaren esparru guztietan.
- Hiri lagunkoiak pertsona guztientzak: herritar guztientzako hiri-irisgarritasunari buruzko appa, open street map duena. Euskadin Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa sustatzen duen zentro bat den Zerbikas Fundazioaren proiektu bat da.
- Bilbao Data Lab, Pablo Rey Mazón eta Jon Bernat Zubiri Reyrena: datuen munduari buruzko komunitate ireki bat da.
- Saregune: teknologiaren erabilera sozial eta komunitario baten alde. Sartu Araba Elkartearen proiektu bat da. Gasteizen lan egiten dute, auzo aberats, anitz eta auzo-ekimen eta -mugimenduez beterik dagoen horretan kokatutako kolektiboen sareekin, teknologia berrietara hurbiltzearen bidez.
- Bioalai Kontsumo Ekologiko Elkartea: baterako kudeaketa eta agroekologia. Helburu du Bioalairen produktu ekologikoen kontsumoa sustatzea, baliabide naturalen narriatzeari galga jartzea eta hurbileko nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotura zuzenagoa bultzatzea.
- WikiEmakume: lankidetza eta ahalduentza, emakume eredugarriak Wikipedia elkarlaneko entziklopedian agerian jarritz (Etxebarriko Inurtxi Emakume Elkartea).
- Impact hub Donostia: ekintzailatza eta elkarren arteko sorkuntza, Impact hub Donostia S. Coop kooperatibaren eraldaketa sozialerako proiektuak garatzeko.



Proiektuei buruzko informazio guztia Gardena-Gardentasun-atarian argitaratuta dago (<http://www.gardena.euskadi.eus/gardentasuna/-/elkarlan-sariak/>)

Sariak, eskudiruko dirulaguntza batez gainera, saritutako proiektuak zabaltzeko konpromisoa dakar, ikusgarri bihurtzeko eta aitortza jaso dezaten. 2017an, Hautapen Batzordearen balorazioari herritarren botoa gehitu zitzaion, eta horrek herritarren parte-hartze handia ekarri zuen. 2018an, aurkeztutako 30 proiektuek 3.817 boto lortu zituzten guztira; horrek agerrarazten du ekimenaren zabalkunde egokia egiten denean eta herritarrentzat interesa duen zerbaiti buruz ari denean, herritarren parte-hartze handia lortzen dela.

OGP Euskadiren 3. konpromisoan gaur arte garatutakoarekin bat, Elkarlan 2019 Sarien deialdia birbideratuko da herritarren parte-hartzea dela-eta berrikuntzaren arloko jardunbidea egokiak orokortzea ahalbidetzen duten esperimendazio-proiektu arrakastatsuak aitortzera, hori guztia Euskadirako herritarren parte-hartzearen arloko berrikuntzako laneratzea sustatzeko modu gisa, OGP Euskadi 2018-2020 Planean hitzartutakoaren arabera.

Herritarrek sortutako balio publiko hori ikusgarri bihurtzea sustatzeko ekintza horiek, halaber, **Euskadiko 2016ko eta 2018ko Open Data sarien deialdietan** gauzatu dira. Honako proiektu hauek hartu dute parte deialdi horietan:

Aplikazioen lehiaketaren modalitatean:

Deialdia	Aurkeztutako proiektu-kopurua	Sari-kopurua	Saritutako proiektuak
2016	17	2	• Open Ispilu • Servirace, Runnerraren gida
2018	16	2	• Osasunaren, ingurumenaren eta arlo sozioekonomikoaren atlasa • Textreference



- **Open Ispilu:** seinaleztapen digitalerako tresna izan dadin ispilu tradizionala eraldatzen duen proiektu bat da, open data informazio garrantzitsua eskaintzea ahalbidetzen duena. Michael Teeuwen ideia batean oinarritzen da, eta informazioa datu irekietatik abiatuta modu intuitibo eta ikusizkoan eskaini nahi duten beste administrazio publiko, elkarte edo saltoki batzuei zuzentzen zaie. <https://openispilu.irontec.com/>
- **Servirace, Runnerraren gida:** lasterkarientzat, haiekin batera doazenentzat eta lasterketen antolatzaileentzat beraientzat intereseko informazioa eskaintzen duen aplikazio bat da. Datu irekiak erabiltzen ditu lasterketa bakoitzetik hurbilen dauden zerbitzuei buruz (hotelak, jatetxeak eta abar). <http://mugan86.com/serviraces/web/>
- **Osasunaren, ingurumenaren eta arlo sozioekonomikoaren atlasa, arlo txikien arabera antolatua,** Imanol Montoya Arronizena: Web-atari bat da, zeina sortu baita desberdintasun geografikoak osasun-adierazleen, adierazle sozio-ekonomikoen eta ingurumen-adierazleen bitartez monitorizatzeko, generoko ikuspegia kontuan hartuta. Mapak erakusten dira osasun-adierazleen banaketa geografikoa eta haiek direla-eta Euskadiko populazioan dauden determinanteak hobeki ulertzeko. <http://www.atlaseuskadi.com/>
- **Textreference: euskararako testuingurudun hiztegia,** Mikel Artetxe Zurutuzarena: Zerbitzu hori euskarazko testuingurudun hiztegi bat da, hainbat administrazioen datu irekiez elikatzen dena. Testuingurudun hiztegiak aukera eskaintzen du itzulpen-memoria publikoetan hitzak eta esaldiak bilatzeko, eta erabileraren adibide errealak erakusten ditu. <http://www.textreference.com/>

Ideien lehiaketaren modalitatean:

Deialdia	Aurkeztutako proiektu-kopurua	Sari-kopurua	Saritutako proiektuak
2016	33	2	• Hauta itzazu etorkizuneko proiektzioa duten ikasketak • iBILI
2018	15	2	• Lizitazio publikoen adjudikazioa • OPE Euskadi



- **Hauta itzazu etorkizuneko proiektzioa duten ikasketak:** proiektuak proposatzen du webeko/sakelako aplikazio bat sortzea, ikasketak hautatzeko erabakia hartu behar duten gazteei informazioa emango diena. Hainbat iturritako datuak konbinatuz, aukera eskaintzen du ikasketa jakin batzuk egin ondoren lan bat aurkitzeko, titulazioaren abandonu-tasa ezagutzeko eta abarrerako http://opendata.euskadi.eus/contenidos/noticia/odc_nt_finalizan_concursos/es_def/adjuntos/19-ideas-estudios-proyeccion-futuro.pdf
- **iBILI – Lizitazioen Bilatzaile Adimentsua:** lizitazio publikoei buruzko informazio garrantzitsua bilatu, aztertu eta erakusteari eta enpresa txiki eta ertainei zein startupek gomendioak egiteari matematika-teknika berritzaileak aplikatzen dizkien proiektu bat da. Enpresa txiki eta ertainen eta startupen lehiakortasuna sustatzen du, kontratu publikoen zabalkunderako plataforma bat eskainiz.
http://opendata.euskadi.eus/contenidos/noticia/odc_nt_finalizan_concursos/es_def/adjuntos/29-ideas-ibili.pdf
- **Lizitazio publikoen adjudikazioa, Eurohelp Consulting SLrena:** Proiektuak, lizitazio publikoetako kontratu-jarduerari buruzko datu irekien hainbat gordailutan argitaratutako informazioa aprobetxatuz eta datu estekatuen (Linked Data) teknologia erabiliz, negozio-idea bat proposatzen du, zeinak aukera emango baitu informazioa datu ireki estekatuen moduan edukitzearen onurak ustiatzeko, eta enpresek eta erakundeek haiek erabiltzeko negozio-aukera berriak aurkitze aldera.
http://opendata.euskadi.eus/contenidos/informacion/concurso_ideas_candidaturas_18/es_def/adjuntos/5.pdf
- **OPE Euskadi, Enrique Rodal Monterorena:** Proposatzen du app bat sortzea, euskal administrazioen enplegu eskaintza publikoen deialdiekin lotutako informazio aipagarria eskainiko duena.
http://opendata.euskadi.eus/contenidos/informacion/concurso_ideas_candidaturas_18/es_def/adjuntos/1.pdf

Open Data sariak berriz enfokatuko dira, inplikaturako zazpi euskal administrazioek OGP Euskadi 2018-2020 Planaren 2. konpromisoa garatzearen ondorioz, 2020. urtean irekiko



diren datuekin sortutako berrerabilpen-ideiei eta aplikazioei buruz herritarrek dauzkaten proposamenak aitortzera.

Halaber, herritarrek balio publikoa sortzeari bultzada eta aitormena emateko helburu horrekin loturik, aipatu beharrekoak dira **OGP Euskadi 2018-2020 Planaren 3. eta 4. konpromisoak, zeinek, hain zuzen ere, herritarren parte-hartzean berrikuntza sustatu nahi baitute**, halako moduz non erantzuleek eta eragile publikoek eta herritarrek gaitasunak eta trebetasunak garatuko baitituzte gai publikoetan laguntzeko eta parte hartzeko, eta balio publikoaren sorkuntzan eta demokraziaren aurrerapenerako herritarren parte-hartzea sustatuko duten bide, prozesu eta tresnak sortuko baitira.

3. GARATUTAKO KUDEAKETA-TRESNA BERRIAK ETA HAIEN INPAKTUA

a. GARDENA, gure gardentasun-ataria, eta INCAUren eta gardentasuna sustatzeko beste organo batzuen ebaluazioa

2015eko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak bazuen jada GARDENA gardentasunaren ataria, eta bertan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak eta Transparencia Internacional España erakundeak autonomia-erkidegoen ebaluazioan eskatutako informazio guztia argitaratzen zen (INCAU 2014). Izan ere, erakunde horrek egindako azken bi ebaluazioetan, Euskal Autonomia Erkidegoak lehenengo postua lortu zuen, 100etik 97,5 puntu lortuz 2012. urtean eta 100etik 100 puntu eskuratuz 2014an (2010. urtean 57,5 puntu erdietsi zituen).

2016ko uztailean, Transparencia Internazionalen (INCAU 2016) bi eragiketari buruzko beste ebaluazio bat jarri zen abian: 80 adierazleren argitalpenari buruzko ebaluazio kuantitatibo bat eta 10 adierazleren inguruan argitaratutako informazioaren kalitateari (irisgarritasuna, gaurkotasuna, edukien ulergarritasuna eta berrerabiltzeko aukera) buruzko ebaluazio kualitatibo bat. EAEk, ebaluazio kuantitatiboak 100 puntutatik 100 lortu zituen, hartan lidergoa lortuz, autonomia erkidegoen sailkapenean lehenengo postuan geratu baitzen bera bakarrik. Ebaluazio kualitatiboan ere lidergoa lortu zen, Katalunia eta Murtzia erkidegoekin batera, sailkapeneko lehen taldean, honako balioespen honekin:

Nori: Informazioaren argitalpenak kalitate-maila altukoak dira, erraz eta aldizkakotasunez eskura daitezke, deskripzio-maila egokiarekin eta,



hautaturiko adierazleen arabera, formatu berrerabilgarriak erabiltzen dira gehienetan.

Ebaluazio hori bi urtean behin egiten da, baina 2018an ez da egin.

2017an, halaber, ura kudeatzen duten organoen gardentasunaren ebaluazioa egitea egokituko zen. Transparencia Internacionalek orobat egiten du hori eta URA Uraren Euskal Agentziari eragiten dio; zuzendaritza honek 2013. urtetik lan egin du harekin, gardentasun-indizeak hobetzeko, eta emaitza bikainak lortu ziren, taula honetan ikus daitekeen moduan:

INTRAG EBALUAZIOAREN URTEA	URAk 100etik lortutako puntuazioa	URAk ura kudeatzen duten 14 organoen rankingean duen tokia	Ura kudeatzen duten organoen multzoan lortutako batezbestekoa
2010	43.8	Hamaikagarrena	51.2
2011	50	Hamaikagarrena	59.6
2013	93.5	Lehena	62.9
2015	94.9	Lehena	61

Hori guztia erdiespen handia da, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza sail guztiekin eta URA Uraren Euskal Agentziarekin elkarlanean aritzearen eta EJIEn laguntza teknikoa izatearen ondorioz, euste-puntu ona baita lidergo-toki hori gordetzen jarraitzeko etorkizunean erakunde horrek edo gardentasuna bultzatzeko beste edozein nazioarteko erakundek egiten dituen ebaluazioetan.

Beste ekimen batzuk sortu dira, DYNTRA esate baterako, informazioa anbizio handiagoz eta metodologia dinamiko batez argitaratzea sustatzen dutenak; hartan, gaur egun, Eusko Jaurlaritzak aitortua du 199 adierazletatik 162 argitaratuak dituela, hau da, % 81,41; halere, hobekuntzarako tarte argia gelditzen da oraindik.

Gardenaren bilakaerari dagokionez, esan behar dugu **Gardena atarirako bisitek (edukien saioak) oso beherakada nabarmena izan dutela 2016tik 2018ra**, baina kontuan hartu behar da eduki gehienak *euskadi.eus* sareko beste atari batzuetakoak direla eta datu horietan zenbatu ez diren bisita propioak dituztela. Beste arrazoi bat izan daiteke Transparencia Internacionalek ez duela ebaluaziorik egin; horrek beste administrazio batzuk, ebaluatzaileak, kazetariak eta abar argitaratutako informazioan asko sartzea



eragiten du. Halaber, kontuan hartu beharra dago ezen, halere, **gardentasunari buruzko eduki orokorretarako sarrerak bi urtetan bikoiztu egin direla (2.385 saio izatetik 4.496 saio izatera)**; badirudi horrek adierazten duela eduki orokor horiek interes handiagoa dutela edo ulergarriagoak direla gardentasun-adierazle berariazkoak baino.

ARLOA	2018	2017	2016	2015	2014
Gardena webgunea orokorrean	11.286	9.138	16.173	5.532	3.775
Autonomia-erkidegoari buruzko informazioa	322	335	1.283	1.422	571
Harremanak herritarrekin eta gizartearekin	159	179	659	593	221
Gardentasun ekonomikoa eta finantzarioa	306	232	954	729	372
Zerbitzuen eta horniduren kontratazioa	202	142	582	584	223
Lurraldearen antolamendua, hirigintza eta obra publikoak	79	46	162	198	108
Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea	2.995	2.253	8.359	1.715	2
Gardentasunari buruzko eduki orokorrak	4.496 *	3.879	2.385	850	66

*"Gardentasuna; Gobernu Ona; Grafikoak, eta abar" edukien saioen batura.

Hala ere, neurri handi batean datuak eta datuak argitaratzeko beharra gaindituta, esan dezakegu beste fase batean aurkitzen garela; hartan, gehiago jotzen da **gardentasun-atariaren egitura, sarbidea eta argitasuna birplanteatzera; izan ere, gardentasun-ataria birdiseinatzeko lanak amaitzen ari dira, halako moduz non, informazio konplexuena errazago ulertzeko irudi berri batekin, grafiko eta bistaratzeekin eta kontakizunekin eta abarrekin** haren eskuragarritasuna areagotuko baita eta erabiltzeko eta berrerabiltzeko erakargarriagoa izango baita. Hurrengo 3 hilabeteotan gauzatuko da haren ezarpena. Hauxe izango da GARDENaren eta haren *homearen* irudi berria





TRANSPARENCIA DEL GOBIERNO VASCO
Portal de Transparencia y Visualización de Datos

DERECHO DE ACCESO A INFORMACIÓN PÚBLICA
Consultar y solicitar información pública. Proceder a la denuncia de infracciones de la Ley de Transparencia.

INFORMACIÓN SOBRE LA ACTIVIDAD ECONÓMICA
INFORMACIÓN SOBRE LA ACTIVIDAD ECONÓMICA
INFORMACIÓN SOBRE LA ACTIVIDAD ECONÓMICA
INFORMACIÓN SOBRE LA ACTIVIDAD ECONÓMICA
INFORMACIÓN SOBRE LA ACTIVIDAD ECONÓMICA

VISUALIZACIÓN DESTACADA

Número y relación de cargos y puestos de confianza

Relación de cargos y puestos de confianza

La actividad económica
Análisis de la actividad económica
Derecho de acceso de la ciudadanía a información pública

PROYECTOS DE TRANSPARENCIA EN EL GOBIERNO VASCO



Hurrengo datu-multzoen bistaratzeak argitaratuko dira lehenengo fase batean:

- Karguak eta ordainsariak
 - Lanpostu-zerrendak
 - Eusko Jaurlaritzako eta erakunde autonomoetako goi kargudunen eta behin-behineko langileen ordainsariak
 - Karguen eta konfiantzazko postuen kopurua
 - Talde parlamentarioak
- Harremanak herritarrekin eta gizartearekin
 - Euskadi.eus-en atarietako erabilerari buruzko estatistikak
 - *Zuzenean* izenekoaren estatistikak
 - Osasun laguntza (itxaron-zerrendak)
 - *On line* izapide eta zerbitzuak (administrazio elektronikoaren barometroa)
- Antolamendua, hirigintza, obrak eta ingurumena
 - EAEko ur-masen kalitateari buruzko estatistika
 - Berotegi-efektuko gasak
 - Airearen kalitateari buruzkoa adierazleak (ozono troposferikoa barne)
- Gardentasun ekonomikoa eta finantzarioa
 - Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak
 - Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
 - Laguntzak, dirulaguntzak eta bekak
 - Eusko Jaurlaritzak nola eta zertan gastatzen duen
 - Biztanle bakoitzeko zergen bidezko diru-sarrerak/gastua/inbertsioa
 - Zor publikoa (zorra/BPGa ratioa)
- Kontratuak
 - Kontratu txiki metatuak
 - Adjudikatutako kontratuen aurrekontu-bolumena, adjudikazio-prozeduraren arabera
 - Adjudikazio-hartzaileak
- Arau-ekoizpena 2014-2018 aldian



Helburua da herritarrek, berrerabiltzeko datu irekiak eskuratzearaz gain, tresna sintetikoagoetarako sarbidea ere izatea, ekintza publikoa modu errazago eta interpretagarriagoan ikuskatu eta ebaluatu ahal izateko, bilatzaileen bitartez eta eskuragarri gerta daitezkeen datuak formatu grafikoan bistaratuz, behar bezala ordenaturik eta antolatuz.

b. LEGEGUNEA ETA TRAMITAGUNE

Eusko Jaurlaritzan administrazio elektronikorako plataforma komun baten sorreran gertatu den aurrerapen handiak aukera eman du, hain zuzen ere, erantzukizun banatuan oinarritutako anbizio handiko eredu baten alde egiteko; eredu horretan, egintza administratiboak eta haiekin lotutako dokumentazioa gertatzen diren unean bertan argitaratzen dira.

Berriki jakin dugu **Euskadi Estatuko liderra dela administrazio digitalean Ernst&Young izen handiko nazioarteko kontsulta-etxeak** Espainiako administrazio publikoen heldutasun digitalari buruz **berriki eman duen txostenaren arabera**. Txostenean aztertzen da betetzen ote diren Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legean jasotako oinarritzko eskakizunak. Aipatutako legeen 132 errekerimendutan oinarritutako txosten horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa da funtzionamendu digitalean erkidego aurreratuena da, zeren eta eskakizun horien % 94,7 betetzen baititu (web-ataria, egoitza elektronikoa, herritarrari eta enpresei laguntza ematea, identitate digitala eta sinadura elektronikoa, ordezkaritza eta erregistro elektronikoa, eta komunikazio eta jakinarazpenak).

Tramitagunek aukera eman du informazio eta dokumentu digitalizatu guztiak webean argitaratzeko.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak **LEGEGUNEA** sortu zuen **2012. urtean**. **Euskal araudiaren atari horrek Eusko Jaurlaritzaren baliabide juridiko guztiak biltzen ditu, herritarrei modu antolatuan eta sarbide erraz eta argien bitartez helarazteko**, eta zenbait eduki-motarekin osatu da, automatikoki, gordailu batzuetatik:

- Araudia (36.581 erregistro gaur egun)
- Zerga-araudia, lurralde historikoen arabera erkatuta
- EAEren eskumenak eta transferentziak



- **Garrantzi juridikoko dokumentazioa.** Gordailu honek 25.530 erregistro dauzka gaur egun. Kanpoko iturrietatik datorren doktrina kentzen bada, 6.791 espediente sortu dituzte barruan eta argitaratu dituzte automatikoki TRAMITAGUNE plataformatik Eusko Jaurlaritzako sail guztiek, eta metadatu eta lotutako fitxategi ugari dauzkate.

Gaur egun, **Tramitagunek eta beste aplikazio korporatibo batzuek aukera ematen dute espedienteen instrukziotik hasita haiei lotutako informazio guztia, Legegunean, euskal araudiaren atarian, argitaratzeko, prozeduraren edozein fasetan.** Bertan, daten, gaien eta dokumentu-moten arabera bilaketak egin daitezke **garrantzi juridikoa duen informazioa** aurkitzeko, hain zuen ere EAEko legedia ulertu eta interpretatzeko bidea ematen duena, eta Eusko Jaurlaritzaren egintza eta jarduerak administratibo batzuk ezagutzeko (planak, xedapen normatibo orokorrak, hitzarmenak, bitarteko propioei egindako enkarguak, kudeaketa-agindua, txosten juridikoak, ebazpenak eta abar).

Gaur egun, honako dokumentu/espediente tipologia hau argitaratzen da:

Selecciona tipo(s) de documento

- ☐ Anteproyecto de Ley
- ☐ Circular, instrucción u orden de servicio
- ☐ Comentario jurisprudencial
- ☐ Consulta jurídica
- ☐ Contrato-Programa
- ☐ Convenio de cofinanciación
- ☐ Convenio de colaboración
- ☐ Convenio patrimonial / Protocolo general
- ☐ Convenio patrimonial ejecutivo
- ☐ Dictamen
- ☐ Doctrina
- ☐ Encargo a medios propios
- ☐ Encomienda de gestión
- ☐ Informe jurídico
- ☐ Plan Departamental
- ☐ Plan Gubernamental
- ☐ Protocolo
- ☐ Proyecto de Decreto Legislativo
- ☐ Proyecto de Decreto
- ☐ Proyecto de Orden
- ☐ Proyecto de Resolución
- ☐ Resolución OARC
- ☐ Resolución de acceso a la información pública
- ☐ Resolución de reclamación de acceso a la información pública

“Doktrina” tipologia kenduta, ikus daiteke **nolako bilakaera esponentziala gertatu den garrantzi juridikoa duen barneko informazio horren guztiaren argitalpenean,**



2014an hasi zenetik 2018ko abenduaren 31ra arte. Horren barruan daude zuzenbidearen interpretazio bat suposatzen duten testuak edo eragin juridikoak dituztenak, lotura dutenak xedapen normatiboen izapidetze-espedienteekin eta haiekin lotutako dokumentazioarekin, hitzarmenekin edo era guztietako enkargu eta aginduekin, plan estrategikoekin, edo kontratu-errekurtsoen, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen edo erreklamazioen arloko organo administratiboaren ebazpenekin, Informazio Publikoa Eskuratzeko Euskal Batzordeak izapidetzen dituenekin.

URTEA	Espediente berriak *
2014ra arte	3.890 (hasierako karga)
2014	59
2015	205
2016	556
2017	568
2018	700
2018-12-31ko erregistroak, guztira 21.853	Barruan sortutako espediente berriak, guztira: 5.978

*Soilik barnean sortutako dokumentuen tipologiak ("Doktrina" tipologia kenduta)

Informazio hori formatu berrerabilgarrietan ere eskaintzen da, Open Data Euskadiren katalogotik.

- **Aplikatzekoa den araudia eta garrantzi juridikoko informazioa**

Soil-soilik begiratuta oinarritzko legediak nahitaez argitaratu beharreko gisa ezartzen duen arau-informazioari —zuzenbideak, jarraibideak, akordioak, zirkularrak edo partikularrek edo beste organo batzuek egindako kontsultei emandako erantzunak, zuzenbidea interpretatzen duten neurrian edo ondorio juridikoak baldin badauzkate, baita lege edo araudien proiektuak ere, dagokien memoria, txosten eta dokumentuekin batera, espedienteak osatu eta jendaurreko informazio izapidean jarri behar badira—, ikus daiteke **azken urteetan arau-ekoizpeneko zein jarduera handia egon den eta nolako zabalkundea egin den**. Dokumentuen honako tipologia honi dagokio, eta haien argitalpenaren bilakaera ondoko taulan ikus daiteke:



- » Anteproyecto de Ley
- » Circular, Instrucción u orden de servicio
- » Comentario jurisprudencial
- » Consulta jurídica
- » Dictamen
- » Informe jurídico
- » Proyecto de Decreto Legislativo
- » Proyecto de Decreto
- » Proyecto de Orden
- » Proyecto de Resolución
- » Resolución OARC
- » Resolución de acceso a la información pública
- » Resolución de reclamación de acceso a la información pública

URTEA	Espediente berriak *
2014ra arte	3.874 (hasierako karga)
2014	58
2015	203
2016	235
2017	264
2018	441
Barnean sortutako expediente berriak, arau-modalitatekoak, eta garrantzi juridikoa duten txostenak, guztira	
5.075	

- **Hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak**

Hitzarmenak, beren modalitate guztietan (protokoloak, batera finantzatzeko hitzarmenak, ondare-hitzarmenak...) eta kudeaketa-aginduak (barne-adjudikazioak, kudeaketa-aginduak eta programa-kontratuak) nahitaez argitaratzeari erreparatuta, eta kontuan hartuta expediente bakoitza bideratzen duten pertsonen hori automatikoki egiten dutela Tramitaguneraren bidez, ikus daiteke, halaber, bilakaera nabarmena izan dela eta informazio ugari eskaintzen dela, baita formatu berrerabilgarrietan ere, Open Data Euskadiko katalogotik. Dokumentuen honako tipologia honi dagokio, eta haien argitalpenaren bilakaera ondoko taulan ikus daiteke:



- » Contrato-Programa
- » Convenio de cofinanciación
- » Convenio de colaboración
- » Convenio patrimonial / Protocolo general
- » Convenio patrimonial ejecutivo
- » Encargo a medios propios
- » Encomienda de gestión
- » Protocolo

URTEA	Argitaratutako erabakien kopurua
2014ra arte	17
2014	1
2015	2
2016	318
2017	302
2018	251
Guztira	891

LEGEGUNEAn argitaratzen denaren eta euskal sektore publikoko webguneetan argitaratzen denaren arteko koherentziari euste aldera, sektorea osatzen duten erakundeei orientazioa eskaintzen ari zaie sinatzen dituzten hitzarmenak edo kudeaketa-aginduak zuzenean edo atxikita dauden sailaren bitartez Tramitagunen sartu ahal izateko, informazio guztia LEGEGUNEAn integratu eta bertatik herritarrei eskaini ahal izateko.

- **Urteko eta urte anitzeko planak eta programak, betetze-mailaren adierazleak eta emaitzak**

Lehendakaritzako sailen planen eta gobernu-planen egutegiari buruzko informazioa argitaratzen zen webgunea egokitu egin da, legeak agintzen duen informazioa argitaratzen dela bermatzeko, eta modu automatikoan Tramitagunetik ere egiteko garapen bat ezarri da. Nolanahi ere, **oraindik ez da hedatu**, beste administrazio-jarduketa batzuekin egiten den bezala, espedienteak izapidetzen dituzten pertsonak izan daitezen kasuan kasuko dokumentuak Lehendakaritzako sailen planen eta gobernu-planen egutegian argitaratzeko arduradunak, baita LEGEGUNEAn ere, kalitate onekoa eta webguneko bi tokietan koherentea den argitalpen eguneratua bermatzeko.



Gaur egun, argitaratuta daude gobernu-planen eta Lehendakaritza Saileko planen jarraipenean

Seguimiento de la Planificación



Legegunean argitaratu dira

URTEA	Argitaratutako planen kopurua
2016	3
2017	2
2018	7

Beste alde batetik, eta betetze-mailaren adierazleei eta emaitzei dagokienez, ohartarazi behar da 19/2013 Legeak urteko eta urte anitzeko plan eta programen betetze-maila eta emaitzak argitaratu behar direla ezarri zuen arren, neurtzeko eta balioesteko adierazleekin batera, **kudeaketa publikoan ez dagoela ebaluazio-kultura nahikorik**. Horren ondorioz, kasu askotan, onartutako planak ez dira ebaluatzen edo ebaluazioak jarraipen-txosten hutsak baino ez dira eta ez dute sakontzen sorrarazitako eraginak eta emaitzak ebaluatzeko adierazleetan. Horrenbestez, existitzen ez diren ebaluazio-prozesu horiek ezin dira argitaratu, agerikoa denez. Horretarako 2020ko *Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren* esparruan, plangintza estrategiko adimendunaren ardatza gehitu da. Horren helburua da plangintza estrategikoaren kultura eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Administrazio Institutuzionalaren jarduketa publikoaren ebaluazioaren kultura sustatzea, herritarrekin eta gainerako erakundeekin partekatutako diagnostikoan oinarrituta 2020-2025erako politika publikoak planifikatzeko, emaitzak xede dituzten aurrekontuak egiteko eta esku-hartze publikoak ebaluatzeko sistema bat, ebaluatzeko funtzioaren instituzionalizazioa garatzeko oinarriak jartzen dituen lege-, antolaketa- eta teknika-egitura bat sortzea gogoan hartzen duena, ezartzeko.

Horrela, gogoan hartzen da Ebaluazio Unitate bat sortzea, lanpostu berriak sortzea, ebaluazioaren arloko lankidetzaren sarea bat konfiguratzeko eta abian jarri beharreko ebaluazioen atari bat eratzea. Hori da hurrengo urteetarako erronka.



c. Argitalpenerako beste tresna batzuk

- **Funtzioak, entitateen organigramak, ordainsariak eta kargu publikoen katalogoaren ibilbide profesionala eta profila**

2016an, karguei buruzko informazioa argitaratzen zen guneen integrazioa egin zen (Irekiko komunikazio irekiko gida eta kargudunen fitxa), informazio guztia kalitate onekoa izan zedin, eta organigrama batzuk eskuz egin ziren; horrek etengabe eguneratzea galarazten zuen. Horregatik, pertsonen, erakundeen edo ekipamenduen direktorio bat sortzeko zerbitzu bat kontratatu da. Direktorio hori erreferentzia erkidea izango da bai administrazio kanpoko bai barruko aplikazioetarako, datu publikoak erabili behar direnean. Horri esker, organigrama-formako edo bestelako bistaratzeak eraiki ahalko dira, beti eguneratuta eta kontsulta-dataren aurreko egoerei lotuta.

Informazio horren zati bat formatu berrerabilgarrietan ere eskaintzen da Open Data Euskadiko katalogoan, baina aipatutako horietara ere hedatu beharko litzateke modu integratuan.

Lan horiek amaitzen diren bitartean, **organigramak berregin dira**, halako moduz non gardentasunaren araudiak eta nazioarteko gardentasun-adierazleek eskatzen duten informazio guztia ematen baita, honako arlo hauei dagokienez: eginkizunak, antolamendu-egitura, hartu-emana, kudeatzen diren aurrekontuak, karguaren pean dauden langileak, agenda, lanbide-profila eta- ibilbidea eta gobernu-programan dagoen erantzukizuna.



Eta hori guztia osatzen da kargu publikoei buruz argitaratutako informazioarekin; honako hauei buruzkoa da informazio hori: kargu publikoen postuen bilakaera, bateragarritasuneko baimenak, abstentzioa eta inhibizioa, eta ondasunen eta ondare-eskubideen deklarazioak. Informazio horrek, gaurkotze-maila egokia du.



Publicidad Activa e Indicadores de Transparencia

[Evolución del número de plazas de cargo público](#)
[Autorizaciones de compatibilidad de actividades](#)
[Abstención o inhibición](#)
[Declaración de Bienes y Derechos Patrimoniales](#)
[Indemnizaciones](#)
[Retribuciones](#)

Esta materia está regulada para los miembros del Gobierno, los altos cargos, personal eventual de la administración vasca y personal directivo de los entes públicos de derecho privado y de las sociedades públicas en la [Ley 1/2014, de 26 de junio](#), Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos, y en el [Decreto 156/2016, de 15 de noviembre, sobre obligaciones y derechos del personal cargo público](#).

Legislatura XI (2016-2020)

- Relación de personal cargo público que ha comunicado la abstención o inhibición en asuntos que pudieran comprometer conflicto de intereses, así como el motivo de la misma.
 - [Relación de personal cargo público que ha comunicado la abstención o inhibición](#) (PDF, 29 KB) (21/02/2019)

- **Kontratatzailearen profila, kontratuen erregistroa eta kontratu txikiak**

Eusko Jaurlaritzako sailtako kontratu txiki guztiak EAEko Kontratuen Erregistroan sartzea bultzatu da, baita euskal sektore publikoko erakundeek eta partaidetzako erakundeek formalizatutakoak ere. Horrela, argitaratutako kontratu txikien kopurua oso nabarmen hazi da 2014. urtetik; beraz, urtebetez aurrea hartu diogu Gardentasunari buruzko Legea indarrean sartzeko egunari.

Halaber, modu metatuan argitaratzen dira, kontratu kopurua eta aurrekontu-bolumena identifikatuz, 2011. urtetik. Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak mantentzen duen informazioa, etengabe gaurkotzen dena.

Informazio hori formatu berrerabilgarrietan deskarga daiteke, modu agregatuan nahiz desagregatuan, eta 2017. eta 2018. urteetan Open Data Euskadiko katalogoan sartu dira, beste kontratazio-prozedura batzuen bitartez adjudikatutako gainerako kontratuekin batera.

- **Emandako laguntzak eta diru-laguntzak**

Laguntzak eta diru-laguntzak argitaratzeko, 2015ean aplikazio informatiko zehatz bat prestatu zen, Ogasun eta Finantzak Sailak sortu eta zaintzen duen datu-base batek elikatzen duena; horri esker, datuak esparru desberdinetako (datak, erakundea,



onuraduna, laguntzaren munta...) bilaketa-motor baten bitartez eskuratzeko aukera dago. Gaurkotzea hilean behin egingo zela aurreikusi bazen ere, datuen atzerapen handiz iraultzen dira; izan ere, 2018ko informazio osoa ez da 2019ko maiatzera arte argitaratu (halere, esan behar da kargatzerakoan 2019ko informazioa ere gaurkotu dela). 2019rako erronka da, beste behin, datuak hilero eguneratuta edukitzeko behar diren neurriek ekitea.

DISTRIBUCIÓN DE LAS AYUDAS CONCEDIDAS

Instrucciones para acceder a los gráficos

INSTITUCIONES	IMPORTES TOTALES (€)				
	2015	2016	2017	2018	2019
INSTITUTO DE LA MEMORIA, DE LA CONVIVENCIA Y DDHH	0,00	145.000,00	663.847,59	461.350,37	0,00
LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO	116.544.147,63	147.011.674,73	148.465.091,57	203.794.265,68	28.609,91
KONTSUMOBIDE-INSTITUTO VASCO DE CONSUMO	13.547,39	2.880.910,57	1.439.965,20	1.385.976,43	0,00
OSALAN-INSTITUTO VASCO DE SEGURO Y SALUD LABORAL	822.511,94	1.111.247,18	1.641.354,15	874.668,96	0,00
ACADEMIA VASCA DE POLICIA Y EMERGENCIAS	18.034,34	12.185,10	0,00	0,00	0,00
EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER	1.445.830,61	1.466.683,93	1.451.353,64	1.453.049,96	0,00
EUSTAT-INSTITUTO VASCO DE ESTADISTICA	51.067,36	13.748,76	64.530,48	0,00	0,00
INAP-INSTITUTO VASCO DE ADMON. PUBLICA	914.091,10	894.061,96	802.112,86	844.388,59	17.600,00
HABE-INSTITUTO DE ALFABET. Y REEUSKALDUN. ADULTOS	29.662.603,51	29.613.173,10	30.767.953,56	32.969.705,17	0,00
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE	1.188.183.446,65	1.381.354.991,72	1.509.598.365,63	1.031.015.151,89	1.138.314,50

Argitaratzen den informazioa oso zabala da, eta posible da diru-laguntza berberaren onuradun guztiak bilatzea, bai eta pertsona fisiko edo juridiko berberari emandako diru-laguntza guztiak ere. Pertsona fisikoen identifikazioa ezabatu egin da izaera pertsonaleko datuen babeserako arauetan ezarritako mugekin zerikusia duten diru-laguntzei dagokienez. Datuen babesari buruzko araupetze berriaren eta Datuen Babeserako Agentziaren jarraibide batzuen kariatara, aldizkarian argitaratzeari begira batzuetan NANA erabili da jakinarazpenak egiteko, eta bilatzailean hobekuntza bat egin dugu, xedea oso desberdina bada ere; izan ere, aldizkariko jakinarazpenaren xedea da interesdunek Administrazioaren erabakiaren (ebazpena) jakinaren gainean jartzea eta halakoetan babestutako NAN bat argitaratuz babes daitezke, eta dirulaguntzen argitalpenaren xedea da, ordea, kontu ematea, eta horregatik legeak ezartzen du onuradunak nor diren argitaratuko dela. Hau da, ez dugu NANaren araberrako bilaketa kendu, zeren eta horrela bilatzen duenak jada NANA ezagutzen baitu eta, horrenbestez ez baikara informazio berririk ematen ari, baina beste iragazki batzuk erabiliz bilatzen denean, **NANaren informazioa ez da ematen Datuen Babeserako Agentziak emandako orientabideari jarraituz.**



Beste hobekuntza bat izan da **erabiltzaileren interfaze berria, zeina orain askoz ere atseginagoa baita.**

2016an, bistaratze grafikoak egin dira, laguntzen eta diru-laguntzen datu orokorrak hobeki ulertzea ahalbidetzeko.

Datuak formatu berrerabilgarrietan deskarga daitezke. Hala ere, ez dakigu datu horiek zein berrerabilgarritasun-lizentziaren bitartez eskaini genitzakeen Open Data Euskadin, estatuko Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari kontsulta egin diogun arren ez dugulako erantzun argirik jaso. Beraz, gaur egun Open Data Euskadiko katalogoan ez da onuradunen daturik eskaintzen.


Epe ertainean, IKUS kontrol ekonomikoko aplikazio orokorra berritzeko prozesuan, **laguntzak eta onuradunak argitaratzeko sistema hobe bat aurreikusi beharko litzateke**, informazioa sortzeko sistema bikoitzari eutsi behar ez izateko; alegia, bertsioa jatorriz elebiduna izango litzateke eta, gainera, informazioa denbora errealean argitaratuko litzateke, gehienez ere hilabeteko kadentziaz, benetako kontu-ematea bermatze aldera.

- **LZ eta enplegatu publikoen bateragarritasunari buruzko ebazpenak**

Gaur egun, lanpostuen zerrenda kalitate handiz argitaratzen da, zeren eta automatikoki eta eguneroko gaurkotzearekin argitaratzen baita informazioa, eta erabiltzen erraza den bilatzaile batez topa baitaiteke, eta, gainera, grafikoak eta gainerako informazioa Open Data Euskadin formatu irekiekin argitaratzen dira.

Gehien erabiltzen den informazioetako bat da, eta zerbitzu ona emateaz gainera, berekin ekarri du sarbide-eskaeren presioa gutxitzea funtzio publikoaren arloarekin telefonoen bidez, posta bidez eta posta elektronikoz komunikatuz.

Hori dela eta, bilaketa hobetu dugu **kidegoaren eta titulazioen bidezko kontsultarekin.**



Bestalde, baimenak argitaratu ditugu EAEko Administrazio Orokorraren eta erakunde autonomoen mendeko langileei dagokienez, baita Ertzaintzako eta Hezkuntzako zein Osakidetzako langileei dagokienez ere. Dena den, beste talde batzuen gaineko



informazioa argitaratzeke dago, esaterako, Justizia Saileko langileei dagokiena, eta aldizka eguneratzeko mekanismo automatikoak ezarri behar dira.

- **Datu pertsonalen tratamendu-jardueren erregistroa**

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea aldatuz, publikitate aktiboaren betebeharrak zabaltzen ditu, azken xedapenetatik hamaikagarrenaren bidez — horrexek aldatzen du 19/2013 Legea— 6. bis artikulua berria sartzen baitu, Tratamendu-jardueren Erregistroari buruzkoa.

Arau horren arabera, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 77.1 artikuluan aipatutako subjektuek beren tratamendu-jardueren inbentarioa argitaratuko dute. Honako hauek dira subjektu horiek: konstituzio-organoak edo garrantzi konstituzionala dutenak eta haien antzekoak diren autonomia erkidegoetako erakundeak, organo jurisdikzionalak, Estatuko Administrazio orokorra, autonomia erkidegoetako administrazioak eta Toki Administrazioa osatzen duten entitateak, Administrazio Publikoei lotutako edo haren menpekoak diren erakunde publikoak eta Zuzenbide Publikoko entitateak, agintari administratibo independenteak, Espainiako Bankua, Zuzenbide Publikoko korporazioak, tratamenduaren xedeak zuzenbide publikoko ahalmenak baliatzearekin lotzen direnean, sektore publikoko fundazioak, unibertsitate publikoak, partzuergoak eta Gorte Nagusietako eta autonomia erkidegoetako legebiltzarretako talde parlamentarioak, bai eta toki korporazioetako talde politikoak ere.

Bestalde, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 31. artikulua xedatzen du subjektu horiek beren tratamendu-jardueren inbentario bat emango duela argitara, eta hartara bide elektronikoetatik sartu ahalko dela. Inbentarioan, 30. artikuluan (Datuak Babesteko Erregistro Orokorrari buruzkoa) ezarritako informazioa jasoko da. Horrenbestez, arau hori aplikatuz kasuko entitatearen edo organismoaren gardentasun-atarian inbentario bat argitaratu beharko da, jardueren-erregistroan oinarritua, hartan ezarritako bereizketa jasoz; izan ere, horren arabera, erantzule bakoitzak eta, kasua bada, haren ordezkariak, bere ardurapean eginiko tratamendu-jardueren erregistro bat egingo dute, hartan jasotako edukiarekin.



Eusko Jaurlaritzak oraindik ere ez du erregistro hori argitaratu. Lanketa-prozesuan dagoenez, ezin da GARDENaren bidez bertara sartu.

- **19/2013 Legea betetzearekin lotura berezirik ez duten argitaratutako beste adierazle batzuk**
 - Gobernu-programaren jarraipena. 2014an, webgune bat sortu zen eta handik egin da 2012-2016rako gobernuaren-programaren jarraipena, herritarrei legegintzaldiko konpromisoei buruzko kontuak emateko (iruzkinak egin dakizkiekeen edukiekin). XI. Legegintzaldiari dagozkionekin eguneratu da.



- Kargu publikoei buruzko informazioa. 2015. urtean, karguen fitxetan dagokien administrazio-organoak kudeatzen duen aurrekontua jaso zen, eta, 2016an, bere funtzioak betetzeko dituen lanpostuen zerrendako postuak gehitu zitzaizkion. Halaber, haien jardueraren inguruko berriei, bideoei, argazkiei eta xedapenei buruzko informazioa ematen da. Halaber, kargu publikoen agenda irekia argitaratzen da. Sailburu-mailako karguak direla eta, gobernu-programan haien erantzukizunpekoak diren ekintzak ere argitaratzen dira.
- Sailburuen bidaia-gastuak. 2016an, sailburuen bidaia-gastuei buruzko informazioa argitaratu zen, eta denboran zehar eutsi zaio horri, baina eguneratze automatikorako sistema iraunkor bat formalizatu behar da.



- Urteko Araugintza Plana. 2017ko maiatzaren 9an, 2017ko Urteko Araugintza Plana, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritakoa, onartu eta argitaratu zen; eta 2018ko otsailaren 16an, berriz, 2018. urteari dagokiona, eta 2019ko martxoaren 12an, azkenik, 2019. urteari dagokiona. Horiek guztiak behar bezala argitaraturik daude eta GARDENaren bidez eskura daitezke.

d. OPEN DATA EUSKADI ataria

Open Data Euskadik, gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren eta haren menpeko entitateen 3.441 datu-multzo dauzka; horiei gehitu behar zaizkie, gainera, beste foru administrazio eta toki administrazio batzuen 741 datu-multzo, katalogo hartan federatuta baitaude.

Beste administrazio batzuk Open Data Euskadiren **katalogoan federatzearena** nabarmendutako lan-ildo bat da. Izan ere, 2018. urtean, Bizkaiko Foru Aldundia sartu da (Gasteizko eta Bilboko udalak eta Gipuzkoako Aldundia 2017an federatu ziren), eta Donostiako Udala sartzeko proiektu bat hasi da, zeina, aurreikusitakoaren arabera, 2019. urtean zehar amaituko baita.

Eusko Jaurlaritzak datos.gob.es webguneko katalogoan dataset gehien argitaratzen dituen datu-iturria izaten jarraitu du, 3.400 dataset baino gehiago baitauzka orain argitaratuta. Era berean, datu-multzo guztiak Europako datu irekien ataritik federatzen dira.

Datu publikoak berrerabiltzea sustatzeko, **datu irekietarako sarien beste edizio bat** antolatu da **2018. urtean, hiru euskal hiriburuen eta hiru foru aldundien lankidetzarekin**. Edizio horretan, alde batetik, berrerabilpenari buruzko ideia onenak saritu dira, eta, bestetik, zerbitzu, azterlan web aplikazio edo mugikorretarako aplikazio onenak, datu irekietatik abiatuz sortutakoak. Deialdian 31 hautagaitzak hartu dute parte guztira, eta sarietan 14.000 € banatu dira, 2 c) atalean azaldu den bezala.

2018. urtean, Open Data Euskadik lehentasuna eman dio bere datu irekien kalitatea hobetzeari; horri begira honako proiektu hauetan egindako lana nabarmendu nahi dugu:

- **ELI proiektua, Linked Datan**

Linked Open Data azpiegituran sartu dira 1936tik dauden euskal araudiaren datu-multzo guztiak sartu dira. Proiektu horrek aukera eman du Europako Legediaren Identifikatzailea (ELI) Eusko Jaurlaritzan ezartzeko; horrekin, Estatuko



lehenengo administrazio publikoa izan da ELI proiektuaren hiru zutabeak guztiz ezarri dituen. Amaierako emaitzak aukera ematen du Europako araudira sartzeko eta harekin elkarraginean operatzeko, web semantikoaren printzipioei esker.

- **Direktorio proiektua**

2017ko Linked Open Data proiektuari jarraitutasuna emanez eta Eusko Jaurlaritzaren datuak estekatzeko, Open Data Euskadik jarraitu du Eusko Jaurlaritzaren Pertsonen, Entitateen eta Ekipamenduen Direktoria sortzeko proiektuan lan egiten. Aurreikusitakoaren arabera, proiektu hori 2019. urtearen amaieran egongo da prest, eta aukera emango du pertsonen, entitateen eta ekipamenduen buruzko datuen gordailu bat sortzeko; izan ere, horrek oinarriak ezarriko ditu Open Data Euskadiren datu irekiak estekatzeko, eta horrekin biderkatu egingo da haien erabilgarritasuna.

- **Linked Dataren azpiegituraren hobekuntza**

2017an argia ikusi zuen Linked Open Dataren azpiegitura hobetzen jarraitu da, eta eboluzio bat gertatu da hirukoitzen datuen baserako (Triple store) aukeratutako produktuan, eta Linked Open Data plataformari eusten dioten aplikazioak ere hobetu dira.

- **Datu meteorologikoak irekitzea**

Proiektu honek aukera emango du datu meteorologiko gehiago irekitzeko eta haien kalitatea hobetzeko; gainera, haien berrerabilpena erraztuko da berrerabiltzaile guztientzako API baten bitartez. 2018. urtean, nabarmen aurreratu da proiektuan, garapen-fasean baitago. Gainera, proiektuak aukera emango du Euskalmeten webgunea birdiseinatzeko, datuak formatu irekietan zabaltzeko esker. Aurreikusita dago 2019ko amaieran amaitzea.

- e. **Informazio publikora iristeko sarbidea eskubidea baliatzeko prozedura/informazio orokorreko postontziak**

2015eko urtarrilean, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legea indarrean sartu baino urtebete lehenago, autonomia-erkidegoei dagokienez, informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea baliatzeko prozedura ezarri genuen.



Prozedura hori PLATEA plataforman jarritako aplikazio informatiko baten bitartez ematen da; bertara egoitza elektronikotik sartzten da, eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskaerak jasotzeko aukera ematen du, bao kanal elektronikotik, bao posta bidez edo aurrez aurre. Elektronikoa ez diren kanaletatik hartutako eskabideak Zuzenean zerbitzuaren bidez sartzten dira sisteman. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea sortzeko dekretua indarrean jarri zenean, 2016ko urrian, aplikazio hori bera egokitu zen herritarrek euskal administrazio publikoen sarbide-ukapenak direla-eta aurkeztutako erreklamazioak bide elektronikoen bitartez ere kudeatzeko.

Antolakuntzaren ikuspuntutik, Zuzenean zerbitzuak sailkatzen du eskaera; horrek esan nahi du arloan eskumena duen sailerako berehalako eskalatua dagoela, espedientea dagokion moduan izapidetzeko. Sail bakoitzak zehazten du nork izapidetu behar duen eta informazioa non jaso behar den, baita ebazpena emateko organo eskuduna zein den ere. Erreklamazioak zuzenean heltzen dira Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordera, eta haren buruak txandaka banatzen ditu hori osatzen duten bi kideak batzordearen osoko bilkuran ebazpen-proposamena aurkezteko.

Kanal elektronikoan bai egoitza elektronikotik bai GARDENA Gardentasunaren Ataritik sar daiteke. Dena den, orain arte hori ez da oso irisgarria izan, **eta zuzeneko sarrera sortu beharko litzateke *euskadi.eus*-eko edo *ejgv.eus*-eko etxeko orritik, zeren eta, estatistikek erakusten dutenez, horrela egiteak eragin handia duelako jasotako eskaeren kopuruan**. Halaber, aztertu da nolako eragina duen identifikazio elektronikorako moduak, disuasiokoa izan ez dadin. Administrazio asko identifikazio hutsaren alde egiten ari dira, edo identitatea egiaztatzeko sistema arin baten alde, nazioarteko erakundeen orientabideei jarraituz. Gure kasuan, eta prozedura garantista bat izan dadin ahalegintze aldera, momentuz **sinadura elektroniko aurreratuaren bilakaeraren** alde egin da; horretarako, pertsona fisikoentzat erabiltzaile- eta pasahitza-sistemak eskaini dira; besteak beste, DNI elektronikoa, herritarraren ziurtagiria, enplegatu publikoaren ziurtagiria eta abar erabiliz.



Sede electrónica



Conoce la sede	Trámites y servicios	Información pública	Utilidades	Ayuda
----------------	----------------------	---------------------	------------	-------

Medios de identificación electrónica admitidos

Estos son los medios de identificación y firma admitidos en esta Sede electrónica, de acuerdo con la [política de firma](#) (PDF, 156KB) aprobada en la [Orden de 27 de junio de 2012](#).

Para la ciudadanía (personas físicas)

[Para las empresas y entidades \(personas jurídicas\)](#)



[Usuario, contraseña y coordenadas:](#)
[B@kQ / Juego de barcos](#)



[Izenpe - Certificado de ciudadano](#)



[DNI electrónico](#)



[Izenpe - Certificado de empleado público](#)



[FNMT - Certificados de persona física](#)



[CAMERFIRMA - Certificados de persona física](#)



[FIRMA PROFESIONAL - Certificados de persona física](#)

2015etik informazio publikoa eskuratzeko jaso diren eskaeren kopurua oso txikia izan da beste autonomia-gobernu batzuek jasotzen dutenarekin erkatuta. Horren arrazoi nagusietako batzuk dira Zuzenean-ek eta bere Telegram mezularitza-zerbitzuak herritarrekin harremanean egoteko eskaintzen duen postontziak zerbitzu ona ematen dutela, eta, halaber, arestian aipatu dugun bezala, herritarrek zailtasunak izaten dituztela identifikazio elektronikoa edukitzeko.

Informazioa eskuratzeko kanal informalak erabiltzea ez da erregistratuta gelditzen informazio publikoa eskuratzeko prozedura administratiboan, baina hurrengo estatistiketan argi ikus daiteke **asko erabiltzen direla eta gainera herritarrek oso ongi baloratzen dituztela**.



Euskadi.eus postontziak 2018an honako jarduera hau izan zuen (2018-12-31ko datuak)

Consultas respondidas por tema (valores absolutos y porcentaje). C.A. de Euskadi. Año 2018.				
MATERIAS	CONTESTADAS POR ZUZENEAN		ESCALADAS	
	Número	%	Número	%
Vivienda	1.518	5,41%	6.735	24,01%
Gobierno y Administración Pública	1.036	3,69%	1.485	5,29%
Educación	849	3,03%	3.791	13,51%
Asuntos Sociales	592	2,11%	489	1,74%
Seguridad e Interior	208	0,74%	1.480	5,28%
Euskera	168	0,60%	364	1,30%
Salud	108	0,38%	628	2,24%
Actividades Económicas	73	0,26%	696	2,48%
Trabajo y Empleo	67	0,24%	598	2,13%
Cultura	35	0,12%	433	1,54%
Ocio y Turismo	33	0,12%	424	1,51%
Medio Ambiente	32	0,11%	689	2,46%
Transporte y Movilidad	18	0,06%	73	0,26%
Justicia	12	0,04%	68	0,24%
Urbanismo y Territorio	9	0,03%	75	0,27%
Infraestructura y Obras Públicas	7	0,02%	71	0,25%
Acción Exterior	5	0,02%	61	0,22%
CONSULTAS RESPONDIDAS	4.770	17,00%	18.160	64,73%
PENDIENTES RESPONDER	5.125		18%	
TOTAL	28.055		100%	

Fuente: Gobierno Vasco. Servicio de Atención Ciudadana – Zuzenean

Eta Telegram mezularitzaren bidez arloz arloko honako kontsulta hauek kudeatu ziren:



Consultas recibidas por tema (valores absolutos y porcentaje). C.A. de Euskadi. Año 2018.				
MATERIAS	RESPONDIDAS POR ZUZENEAN		ESCALADAS	
	Número	%	Número	%
Vivienda	1.068	37,33%	3	0,10%
Educación	613	21,43%	2	0,07%
Gobierno y Administración Pública	412	14,40%	2	0,07%
Asuntos Sociales	281	9,82%	0	0,00%
Seguridad e Interior	127	4,44%	0	0,00%
Euskera	85	2,97%	0	0,00%
Actividades Económicas	81	2,83%	1	0,03%
Salud	38	1,33%	0	0,00%
Medio Ambiente	30	1,05%	0	0,00%
Trabajo y Empleo	30	1,05%	1	0,03%
Cultura	27	0,94%	0	0,00%
Ocio y Turismo	22	0,77%	0	0,00%
Justicia	16	0,56%	0	0,00%
Urbanismo y Territorio	9	0,31%	1	0,03%
Acción Exterior	7	0,24%	0	0,00%
Infraestructura y Obras Públicas	3	0,10%	0	0,00%
Transporte y Movilidad	2	0,07%	0	0,00%
CONSULTAS RESPONDIDAS	2.851	99,7%	10	0,3%
TOTAL	2.861		100%	

Fuente: Gobierno Vasco. Servicio de Atención Ciudadana – Zuzenean

Nabarmendu beharra dago **2018ko asebetetze-inkestaren datuak onak izan direla, bai euskadi.eus postontziari dagokionez, bai Telegram mezularitza-sistemari dagokionez ere** (irisgarritasuna, erantzute-denbora, erantzunaren kalitatea...); bi kasuetan, gainera, 2016arekin alderatuta hobera egin da.

**Evolución de la satisfacción con la atención***

Base: Total de personas entrevistadas

	Buzon.eus		Telegram	
	2016	2018	2016	2018
El tiempo transcurrido desde que enviaste tu consulta hasta que recibiste la respuesta de Zuzenean	7,9	8,1	7,6	8,4
La posibilidad de contactar con la administración mediante medios electrónicos	7,7	7,4	7,5	8,5
La claridad de la información facilitada	6,7	6,7	7,2	7,7
La utilidad de la información facilitada	6,5	6,3	7,0	7,1
El formulario de contacto en internet que tuviste que rellenar	7,3	8,0	---	---
La facilidad de localizar el buzón de contacto de Euskadi.eus para formular su consulta	7,1	7,6	---	---
SATISFACCIÓN MEDIA	7,2	7,4	7,3	7,9

Informazio publikoa eskuratzeko prozeduraren datu zehatzetan zentratuta, ohartarazi beharra daukagu, halaber, **bilakaera positiboa** izan dutela, jasotako eskabideen kopuruari dagokionez; halere, **erantzute-epeak zaintzen jarraitu beharra dago**, zeren era oraindik ere maiz gertatzen baita DACIMAK sailei abisuak eman behar izatea epeak luza ez daitezen eta ebazpenak ez daitezen epez kanpo eman, edo administrazio-isiltasunak gerta ez daitezen. Hala eta guztiz ere, ebazpena emateko batez besteko denboraren igoerak justifikazio bat du: epeak eten egiten dira ukitutako hirugarrenei entzunaldia ematen zaienean, eta halakoak ez dira kontuan hartu estatistika egiteko. Ikus daitekeen bezala, informaziorako sarbidea ukatzeko kasuak oso gutxi baizik ez dira.

URTEA	Jasotako eskaeren kopurua	Onartu ez direnen kopurua	Sarbide osoa emateko ebazpenen kopurua	Sarbide partziala emateko ebazpenen kopurua	Ukatzeko ebazpenen kopurua	Atzera egindakoen edo bideratutakoen kopurua	Ebazteko batez besteko denbora
2015	30	3	23		3	1	27 egun natural
2016	67	6	53			8	20 egun natural
2017	56	8	38	3		7	23.5 egun natural
2018	87	12	59	11	3	2	28 egun natural



Informazio hori GARDENAn argitaratuta dago, ebazpenekin batera, jasotzen dituzten datu pertsonalak kendu eta interesdunei jakinarazi ondoren.

Jaurlaritzako sail guztiak inplikatu dira prozeduran; halere, honako hauek izan dira, aipatzen diren hurrenkeran, eskaera gehien jaso dituztenak: Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Saila; Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Eta eskaera gutxien jaso dituztenak, berriz, honako hauek izan dira, aipatzen diren hurrenkeran: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila; Lan eta Justizia Saila; Lehendakaritza Saila; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Ogasun eta Ekonomia Saila; Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, eta Segurtasun Saila. Ez da EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeen eskaerarik jaso (URArenek izan ezik). Nolanahi ere, kasuko sailak eskatzaileei emandako informazioaren bat helarazi digute sektore publikoko zenbait erakundek, eta ez dakigu kausa zein izan den: benetan existitzen ez direlako, ezarritako prozedurari jarraitu gabe erantzuten direlako edo, besterik gabe, ez direlako erantzuten ari. Euskal sektore publikoko erakundeekin eta partaidetzako erakundeekin egindako sentsibilizazio- eta aholkularitza-prozesuan, adierazi da komenigarria dela beren web atarietan gehitzea Eusko Jaurlaritzak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko ezartzen duen prozedurarako sarbidea, benetan ebazten dela eta jarduera guztiaren jarraipena egiten dela bermatzeko. 2017ko balantzean adierazi zen bezala eta 2018an egiaztatu den bezala, euskal sektore publikoaren menpeko erakundeek jada halaxe argitaratu dute beren web-orrietan.

f. Euskal sektore publikoko beste entitate batzuen tarifak eta tresna komunen erabilera (gardentasunaren betebeharrak betetzeari buruzko datuen bilakaera)

Euskal sektore publikoko erakundeek eta partaidetzako erakundeek informazioa beren web-orrietan argitaratzeari dagokionez, **nabarmen ikusten da 2018an zehar hobekuntza bat gertatu dela publizitate aktiboaren betebeharrak betetzeari dagokionez**, eta *EAEko sektore publikoko erakundeek ia guztiz bete dituztela; halere, partaidetza desberdinagoa izaten da partaidetza gehiena publikoa duten eta ezein administrazioetako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeetan, eta EAEko sektore publikoaren partaidetza duten beste entitate batzuetan*. Beraz, horietan arreta jartzen jarraitu beharko da.

Hurrengo taulan 2018ko bilakaera hori erakusten dugu, 2017an bildutako datuekin alderatuta.



			BALANCE 2017		BALANCE 2018	
ENTIDADES ANALIZADAS 116			Entidades que publican más de 15 contenidos de los 19 obligatorios	Entidades que publican más de 10 contenidos de los 14 obligatorios	Entidades que publican 17 contenidos o más de los 19 obligatorios	Entidades que publican 12 o más contenidos de los 14 obligatorios
Sector público de la CAE	Organismos autónomos	10	10		10	
	Entes públ de derecho priv	9	9		9	
	Soc publicas	39	39		39	
	Fundaciones	7	7		7	
	Consortios	1	1		1	
	subtotal	66	66		66	
Entidades con participación pública mayoritaria, no integradas en el sector público de ninguna administración	Soc mercantiles	11		9		9
	Fondos	4		4		4
	Fundaciones	17		8		3
	Consortios	4		0		0
	Otras sin fines lucrativos	8		5		3
	subtotal	44		26		19
Otras entidades participadas por el sector público de la CAE	Fundaciones	5		5		5
	Otras sin fines lucrativos	1		0		0
	subtotal	6		5		5

Informazioa argitaratzeko modua dela eta, nabarmendu behar da ez ebaluatu osorik dagoen, eguneratuta dagoen eta ulargarria eta irisgarria den. Hala ere, aurrera daiteke hobetzeko bide luzea geratzen dela herritarrei informazio publikorako sarbidea erraztu nahi bazaie.

2017ko balantzean jada adierazi genuen bezala, 2019. urte honetarako erronka bat da **tresna automatizatu bat sortzea, entitateen beraien autoebaluazio-prozesu bat bideratuko duena, kanpoko laginen analisi batekin konbinatuta**, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak autonomia erkidegoekin lankidetzan garatu denaren antzeko metodologia baten bitartez; tresnaren izena, MESTA da, eta datu publikoetan bi irekitasun-maila neurtzen ditu; batetik, Gardentasunari buruzko Legearen nahitaezko betetzearen maila ebaluatzeko bidea ematen du, eta bestetik aukera ematen du borondatezko adierazleen, beste araudi konplexuago batzuetatik ateratzen direnen, gardentasunaren kalitatea neurtzeko. Gainera, gardentasun atarietan eskaintzen den informazioaren atributuak neurtzen ditu, neurketa-adierazle objektiboak erabiliz: argitaratzeko modua (zuzena edo zeharkakoa), gaurkotasuna, eskuragarritasuna, argitasuna, egitura, berrerabiltzeko aukera... Horrek lagunduko luke publizitate aktiboko betebeharrak handiagoak ezartzeko, gardentasuna dela-eta eskakizun-maila handiagoa duen araudi autonomiko bat badaukagunean.



Halaber, lan egiten jarraitzen da aholkua ematen eta tresna komun erabileran, DACIMAK egindako dokumentuan, GARDENTASUNARI, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO BIDEARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKO 19/2013 LEGEA BETETZEKO (PUBLIZITATE AKTIBOA) ETA INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDE ESKUBIDEA BALIATZEKO EAEko SEKTORE PUBLIKOARENTZAKO ORIENTAZIOAK izenekoan, zehaztu zen bezala. 2016ko otsailean banatu zen dokumentu hori, oinarritzko araudi aplikagarrian ezarritako betekizunak interpretatzen laguntzeko eta GARDENA Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasun-atarian eta erakunde horietako bakoitzaren web-orrietako gardentasun-atarietan argitaratutakoari koherentzia emateko.

III. 2019RAKO ERRONKAK

Ondorio gisa balio beza 2019rako erronka garrantzitsuenen bilketak; izan ere, erronka horiek jada adierazi izan dira arestian garatutako ataletako bakoitzean, eta arlorako ibilbide-orri gisa balio dute:

- **GARDENaren birdiseinatzea** amaitzea, irudi berri bat, grafikoak eta bistaratzeak sartuz, informazio konplexuena ulertzen laguntzeko kontakizunekin eta abar.
- **OGP Euskadi 2018-2020 Planean ezarritako konpromisoen garapena** betetzea, bereziki 1. konpromisoari —KONTUAK EMATEA agintaldiko planen bidez—, 2. konpromisoari —OPEN DATA EUSKADI eta LINKED OPEN DATA— eta 3. konpromisoari —Herritarren parte-hartzearen ILAB-a Euskadin— dagokienez, horiexek baitira Eusko Jaurlaritzak lideratzen dituenak, Lehendakaritzaren bidez eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren bidez.
- **Elkarlan 2019 Sarien** deialdia, **Euskadirako, herritarren parte-hartzerako berrikuntzaren ilaba bultzatzeko orientazio berriarekin.**
- **Open Data Euskadi Sarien** deialdi berria prestatzea. **2020an gauzatzekoa da deialdi hori**, eta ukitutako zazpi euskal administrazioek datu irekiak berrerabiltzeko ideiak eta proiektuak aurkeztu ahalko dira. OGP Euskadi 2018-2020 Planeko 2. konpromisoarekin koherentzia izateko berrorientatu da.



- Argitaratutako informazioaren irisgarritasunean, osotasunean eta gaurkotzean hobekuntzak egitea, batez ere planei eta haien ebaluazioari, **dirulaguntzei** eta abarrei dagokienez.
- **Datu pertsonalen tratamendu-jardueren** erregistroa argitaratzea.
- **Gardentasun-adierazleen argitalpenean aurrera egitea.** Gaur egun, hori ez da nahitaez bete beharrekoa oinarritzko legediaren arabera, baina betebeharrak hori araudi autonomikoetan eta nazioarteko erreferenteetan jaso dira, eta segur aski euskal araudian ere sartuko dira, Legebiltzarrean gaia izapidetzen ari baita.
- **Beste administrazio batzuk** Open Data Euskadiren **katalogoan federatu daitezten** bultzatzea.
- **Direktorio proiektua** eta **datu meteorologikoen irekitzea amaitzea**, Open Data Euskadiren esparruan.
- **Irisgarritasunaren arloko** hobekuntzak, euskal sektore publikoko entitate guztien **informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatu ahal izateko**, eta azkartasuna haiek ebazterakoan
- **Tresna automatizatu bat** erabiltzea, **zeinak aukera emango baitu euskal sektore publikoko entitateek beren burua ebaluatzeko prozesu bat egon dadin**, laginen kanpoko analisi batekin, horren bidez Gardentasunari buruzko Legean ezarritako publizitate aktiboko betebeharren betetze-maila ezagutzeko, bai ikuspuntu kualitatibotik, bai ikuspuntu kuantitatibotik ere; tresna horrek, halaber, aukera emango du hobekuntza-planak ezartzeko.